



Zulotik historia

Arkeologoak Aralarren indusketa eta laborategi lana egiten ari dira / 12-13



Altsasuko plazako "kaltetutako" eskultura auzolanean bizitzara bueltatuko dute / 23

Ikasketen Akaberako Aparteko sariak jaso dituzte Asier Gartziandiak eta Nahia Urkiak / 2-4

Kontsumitu aurretik hausnartzeko "Zaindu dezagun festa, zaindu gaitezen festetan" kanpaina / 6

Ikasle Abertzaleen Eskola Ibiltariak Sakana zeharkatuko du asteazkenetik aurrera / 7

Arakilgo Eguna Itsasperrin eta Satrustegin ospatuko da bihar, txondorra eta guzti / 9

Irurtzun festen ekuatorean eta Bakaiku eta Olatzagutia lekukoaren zain / 10-11

Txirrindularitzako Nafarroako eta Euskadiko erlojupeko txapelketak Iturmendin / 17



Sakanako Haur Triatloia bihar, 10:00etatik aurrera, Urdaingo igerilekuan jokatu da / 19

"Gustatzen zaizuna ikastea da sekretua"

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Ikasketen Amaierako Aparteko sariak banatzen ditu urtero. 2016-2017 ikasturtean bi sakandarrek jaso dute ikasle onenei ematen zaien saria: Asier Gartzandia Lopezek eta Nahia Urkia Ihabarrek.

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Asier Gartzandia Lopez eta Nahia Urkia Ihabar ikasle bikainak izan dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ematen dituen Ikasketen Amaierako Aparteko Sariak eskuratu dituzte bi arbizuarrek. Gartzandiak Industria Teknologietako Ingeniaritza ikasi zuen eta Urkiak Gizarte Laneko gradua. Ikasketak gustuko izatea omen da nota onak ateratzearen sekretua.

Saria

Nafarroako Unibertsitate Publikoak espediente akademiko onenak saritzen ditu Ikasketen Amaierako Aparteko Sariekin. Hortaz, graduatuko lau ikasturteetan batz besteko 8 bat baino gehiago lortu dutenak saritzen dituzte. Espedientearen barruan azterketetan, lanetan eta ikasketetan egindako guztia sartzen da. Baita Gradu Amaierako Lanak ere.

27 ikaslek jaso zituzten 2016-2017 ikasturteko Aparteko Sariak. Bi edo hiru sari ematen dituzte gradu bakoitzean. Ikasle onak izatearen errekonozimendua lortu ez ezik, unibertsitateak 300 euroko saria ematen die ere. Etorkezinean baliagarria izan daitekela uste dute ikasleek.



NAHIA URKIA IHABAR GIZARTE LANGILEA

Gizarte laneko gradua ikasi duzu, eta unibertsitateak ikasketen Aparteko Saria eman dizu. Unibertsitateak sari hauek ematen zituela bazenekien?

Bai, banekien graduazioaren egunean ikusi genituelako gazte batzuk eta gure artean komentatu genuen ea zertan ari ziren han. Sariak aurreko ikasturteko ikasleei ematen zaizkie, hau da, aurten 2016-2017 ikasturtean amaitu genuenoi eman dizkigute. Beraz, gazte horiek ez ziren gure kurtsokoak eta zerbait jasotzen ari ziren. Lagun batek esan zidan sariak zirela, eta nik hurrengo urtean jasoko nuela. Nik ez nuen uste.

Beraz, ez zenuen espero.

Kasualitatez banketxeko kontura gauza bat egitera sartu nintzen eta diru gehiago neukala ikusi nuen. Unibertsitatearena zela ikusi nuen eta hanka sartu zutela pentsatu nuen. Gero e-posta begiratu nuenean ikusi nuen abisatu zidatela. Gradu Amaierako Laneko tutoreak ere zoriondu ninduen, ni baino lehenago jakin zuen. Susmoa baneukan azken urtean nahiko nota onak atera nituelako. Baina, noski, hirurogeita hamar pertsona ginen klasean eta ez nuen pentsatzen ni izan nintekeenik. Ikusi nuenean poza hartu nuen. Errekonozimendu akademikoa ez ezik, ekonomikoki saritzea ere lagungarria bada.

Zerbait berezia egin duzu saria lortzeko?

Ni nota hoberenak lortzera joaten nintzen, baina graduazioan izan nuen sariaren berri.

Eta nota onak izateko, zer egin duzu?

Gradua gustatu, hori bai. Eta gero ez dakit, errespetua eta interesa izatea, azken finean. Sekula ez dut izan arazo handirik. Gehienbat interesa jarri, lanak ongi egin eta irakasleekin harremana ahalik eta osasuntsuena izan. Azken finean, irakaslea gustuko ez dudala esateak eta klasera ez agertzeak ez du balio, ez. Gainera, adinaren aldetik ere uste dut unibertsitateak beste funtzio bat eskatzen duela. Heldutasuna daukagu eta horren

harira aritu behar dugu, nire ustez. Unibertsitateak eskatzen du, nire ustez, klase-orduak aprobetxatzea. Bi ordu dira, bi ordu horiek ahalik eta hobekien aprobetxatzen badira azterketarako ez da egon behar ikasten 24 orduz astebetetz. Nire ustez hori ez da metodologia egokia. Dena dela, hori da nire kasuan, nor bere metodologia dauka. Niri balio izan dit klasean adi egoteak eta jarraikortasun bat eramateak. Bezperismoa egiten genuen gaztetan, baina orain unibertsitatean bezperismoak ez du balio gai luzeak izaten direlako.

Esan duzu ikasten ari zaren graduan interesa izatea garrantzitsua dela nota onak ateratzeko. Zergatik aukeratu zenuen gradu hau?

Gizarte Lana beti gustatu izan zait. Jendeak esaten du gizarte-laguntzaile, jendeari laguntzea... horri buruzkoa da, ez? Badauka bere kreatibitate puntu bat. Arte Ederrak ikasten hasi nintzen, oso sormeneko delat. Baina, beti gustatu izan zait jendearekin egotea, harremanak, interkulturalitatea, eta gazteekin egotea gehienbat. Saltsa horretan mugitu izan naiz beti eta pertsona oso irekia naizenez ongi etorri zitzaidan gradu hau aukeratzera. Hau edo psikologia. Gizarte zientzietako alor horretan nengoen.

Arte Ederrak egiten hasi zinen, nolatan izan zen aldaketa?

Arte Ederretan hasi nintzen baina zaletasun bat zela konturatu nintzen. Oraindik jarraitzen dut etxean gauzak egiten. Une bat iritsi nintzen non azterketak egin nituen eta esan nuen, honaino, hau zaletasun bat da eta joan zaitez egitera benetan gustatzen zaizuna. NUPeko eskaintzari begira egon nintzen eta irakasle-ikasketen, psikologiaren

"KLASERA JOATEA ETA JARRAIKORTASUN BAT ERAMATEA DA METODOLOGIARIK HOBERENA"

 EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com		 Etxe pasiboetarako egokia	 Beirak lehorrean jarrita
			 Isolamendu nukleo indartsua	 Aparteko azala koloreztatua
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea				

edo gizarte lanen artean nengoen. Hiru horiek gustatzen zitzaizkidan eta aukeratu behar nuen. Unibertsitatean gizarte zientzietan lehenengo urtean hiru graduazioak, soziologia, irakasle-ikasketak eta gizarte lanak batera daude antzeko oinarria dutelako. Gero soziologiarekin baten bat ere konpartitzen dugu, baina hirugarren mailatik aurrera material sartzan da. Niri pasatu zitzaidan lehenengo bi urteetan pentsatu nuela: non nago, zertara etorri naiz honuntza. Eta gero hirugarren eta laugarren urtean bidea zela ikusi nuen.

Espediente akademiko hoberenak dituztenei ematen zaie saria. Ikasketak osoan zer moduzkoak izan dira notak? Gorabeherak izan dituzu?

Nire kasuan goraka joan da. Nire ustez aurretik kontatu dudana gatik. Azken finean badago jendea ez zaiona ikasketak gustatzen eta barruan duen indarra ateratzen duena eta ikaragarriko notak ateratzen dituztenak. Nire kasuan gustatzen zait ikasi nuena, baina hasieran galde-tu nion nire buruari ea aukeraketa ona egin nuen. Beraz, hasieratik nota onak izan ditut, mantendu dira, baina hirugarren eta laugarren mailetan bai igo zitzaizkidalda. Hori bai, nire ustez, gustatzen zitzaizkidan isla da. Bide onetik joaten nintzen seinale.

Gradu Amaierako Lana egin behar izan zenuen gradua lortzeko. Zeri buruzkoa egin zenuen?

Sakanako oinarriko gizarte zerbitzuetan ematen diren dilema etikoak deitzen da. Sakanaren inguruan egin nuen, beraz. Sakanan mailan egin den lehenengo ikerketa izan da. Nafarroa mailan egin zen, baina 2007 urtekoa zen. Nire tutorea, Fran Idareta, sakandarra da ere. Esan nion: planteatzen dizut dilema etikoa: psikologia eta alde horretatik. Gizarte zerbitzuetan ematen diren dilema etikoak. Gainera, Sakana oso konplexua da: Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko gizarte zerbitzuak ditugu, eta horrelako errealitate anitza denez kostatu zitzaidan. Azaroan hasi nintzen egiten. Baina etekinak izan ditu ere. Publikatu behar didate aldizkari zientifiko batean, Zerbitzu deitzen da. Abuztuan kaleratuko da.

GRAL-aren notak saria eskuratzeko balio izan dizu?

Nota ez da izan isla. Beste alderdi batzuk sartzen dira hor. Epaimahala ez dut esango txarra zenik, baina inmigrazioan eta interkulturalitatean espezializatuta zegoen. Beraz, ni etikaren alorretik joan nintzen ez zen haien gaia. Nota handiagoa espero nuen.

Sariak lana aurkitzeko erraztasuna emango dizula uste duzu?

Ez dakit. Eman zidatenean lanean nengoen, eta orain ez nabil lanean. Behin curriculumean jarrita, agian. Gaur egun gazte gehienek curriculumak zenbat orrialde ditu? Zenbat titulu, zenbat ikastaro... Ez dakit, baina nik uste gehiago ahoz ahoko gauza izango dela. Sakanan mugitzen banaiz ahoz ahokoak asko balio du. Baina espero dugu isla izatea, curriculumean jarri ondoren norbaitek kontuan izatea.

Sariaren helburuetako bat da lana aurkitzen laguntzea?

Bai, izan daiteke. Nire ustez kontraprestazio bat bezalako da. Zu han egon zara lau urte matrikulak eta gauzak ordaintzen eta gero unibertsitateari katxea igo diogu, guk ematen diogu kategoria bat: begira, ikasle hauek atera zaizkit aurtan. Aipamena egiten dute, behintzat.

Ikasten jarraituko duzu?

Printzipioz masterra ez dut egingo arrazoi ekonomikoengatik. Masterrak asko exijitzen du, eta lanarekin uztartuz gero, denboraren kudeaketa oso gogorra izan daiteke. Nik jarraitu dut ikasten, jarraitu dut ikastaroak egiten. Hiru ikastaro egin ditut orain arte, eta beste bat hasiko dut orain. Oposizioak prestatzen ari naiz orain ere. Nire helburua aurtengo oposizioak dira. Eta posible bada hemen lortzea lanpostua. Oposizio hauek azken urteetako lehenengoak dira.

Unibertsitatean izan duzun lan kudeaketak oposizioak prestatzeko balioko dizula uste duzu?

Bai, egia esan bai. Desberdina da ere. Ikasketetan legedi asko ikasten da, oinarrikoak dira legediak. Eta hainbat lege ulertzeko bai lagunduko didala. Eta egunerokotasuna eramateko ere bai. Ez da egunero ikastea, baizik eta egunero irakurtzea. Niri irakurtzeak asko egiten dit. Gero nik daukadan gaitasuna bisuala da. Nire koadernoak ortzadarrez beteak daude asko laguntzen didalako. Ohiturak dira ere. Ikasteko ohiturak gaztetatik ditugu eta unibertsitatean fintzen ditugu.

"Enpresek baloratzen dute saria lortu izana"



ASIER GARTZIANDIA LOPEZ
INDUSTRIA TEKNOLOGIETAKO INGENIARIA

NUP-ek ematen dituen Ikasketen Amaierako Aparteko Sarietako bat jaso zenuen 2016-2017 ikasturtean nota hobereatarikoak izateagatik. Zure kasuan Industria Teknologietako Ingeniaritza ikasi zenuen. Bazenekien sari hauek ematen zirela?

Bai, banekien. Entzuna neukan norbaiti eman ziotela, urtero banatzen dituztelako eta uniber-

sitatean denok ezagutzen dugu elkar eta norbaitek jaso zuela entzun genuen.

"INGENIARITZA ZAILA DA ETA HORREGATIK ERE SARIA JASOTZEAK ASKO POZTEN NAU"

Jasotzea espero zenuen?

Zalantzak neuzkan, baina banekien aukera nuela notengatik. Azkenean horrela izan zen, jaso nuen. Egia esan poz handia eman zidan. Oso kontentua.

Zerbait berezia egin duzu saria lortzeko?

Ez, besterik gabe nota hobereatarikoak izatea. Nota onak lortzeko saiatzen naiz gauzak eguneratuta eramaten eta ikas-kideekin hitz egiten; gauzak errepasatzen eta egunero klasean ikusitakoa eguneratuta eramaten. Hori da nire metodoa. Bestela, azkenean lana pilotzen da eta hori ez da metodo ona, nire ustez.

Zein da sariaren helburua?

Nota onak lor daitezkeela erakustea eta jendea animatzea.

Esaten dutenez, Ingeniaritza zaila da. Eta, hala ere, nota hobereatarikoa lortu duzu. Gainera, lau urtean amaitu duzu, ikasle oso ona izan zaren seinale.

Bai, batez ere Industria Teknologietako Ingeniaritza, nik ikasi dudana, jende gehien sartzen denetarikoa da. Jende asko gaude eta zaila da. Horregatik ere oso kontentua nago, egia esan. Zailtasun hori kontuan hartuta, gainera, are gehiago. Izan ere, ez dut lanik egiten eta behintzat nire hobereatarikoa ikasketetan ematea gutxienekoa dela uste dut nire familiarendako.

Ingeniaritzaren barruan asko daude, zertan datza zuk ikasitako ingeniaritza?

Ingeniaritzetatik orokorra da. Elektronikari buruzko aspektuak ditu, elektrika, mekanika, kimika, baita kudeaketari buruzko aspektu batzuk ere. Ingeniaritza mekanikan, esaterako, bakarrik mekanika lantzen da. Eta Industria Teknologietako Ingeniaritza orokorra da. Bere arriskua

du, izan ere, ikasketen konpetentziak lortzeko bi urteko masterra egin behar da, eta horrela lortzen da espezialitatea: bai mekanika, elektrika edota elektronika arlokoak. Graduarekin lan egin daiteke, baina ezin dira proiektuak sinatu. Ingeniari Teknikoa zara graduarekin. Proiektuak sinatu ahal izateko masterra egin behar da, eta, horrela Goi Mailako Teknikoa zara. Beraz, guztira sei urte dira. **Ikasten jarraituko duzu, beraz.**

Bai. Masterraren lehenengo urtea amaitu dut eta hurrengo urtean masterra bera amaitzea espero dut. Arlo honetako gauzak oso gustukoak ditut. Gradu lehenengo urtean ez nengoen hain gustura irakasgaiak oso orokorrak zirelako. Baina hirugarren mailan zehaztasun gehiago zegoen eta arloak gustatzen zitzaizkidan, eta orduan jakin nuen aukera ona zela.

Hala ere, lehenengo urteetan ere nota onak lortzen zenituen, izan ere, Aparteko Saria lortzeko unibertsitate-ikasketa osoko noten bataz bestekoa kontuan hartzen da.

Bai, hori da. Ni sartu nintzenez gradu honetan aukera zegoen irakasgai batzuk ingelesez egiteko eta lehenengo urte horietan ingelesez egin nituen irakasgai horiek. Beraz, ez nuen gaztelaniazko lerrotik zihoan jendea ezagutzen, ez genuen elkar ezagutzen. Orduan, ezin da jakin ongi zoazen, zu baino hobeto doazen... Baina lehenengo urtea nahiko ongi joan zen, egia esan. Gero hobera joan nintzen.

Hasieratik ingeniari zara egitea pentsatu zenuen?

Bai. DBHn eta Batxilergoan matematikak eta fisika gustatzen zitzaizkidan eta uste nuen ingeniari zara horiek ondo biltzen dituen gradua dela. Hasieran zalantzan egon nintzen ez nekielako oso ondo zein ingeniari zara egin nahi nuen, baina orokortasun horrek lagundu zidan aukera hori hartzen.

Zuk ikasi duzun ingeniari zara espezialitatean hiru aparteko sari eman dira. Horrek esan nahi du Nafarroako Unibertsitate Publikoan maila altua dagoela, ez?

"GRADU AMAIERAKO LANAREN NOTA ONAK ASKO LAGUNDU ZIDAN UNIBERTSITATEKO SARIA JASOTZEKO"



Nahiari saria eman zioten momentua. UTZITAKOIA

Nik uste dut ikasturte honetako ingeniari zara jende oso ona zegoela, eta, bai, batez ere karerra hau betidanik egon da unibertsitatea eta esperientziagatik edo jende ona dago. Onak dira. **Beraz, ingeniari zara oso zaila dela eta lortzea asko kostatzen diren kontu horiek kondairak dira?**

Denetarik dago. Ataskaturik geratu ahal zaizu. Baina gustuko baduzu eta benetan gustura egiten baduzu, nire ustez, atera daiteke eta lau urtean ongi. Arazoa da gustuko ez baduzu edo gustatzen ez zaizun unibertsitate-ikasketa hartzen baduzu. Hori arazo handia da. Nota onak lortzeko sekretua izan daiteke. **Saria jasotzeagatik lana aurkitzeko erraztasun handiagoa izango duzula uste duzu?**

Nik uste dut baietz. Enpresek baloratzen dute esaten diezuean. Badakite hor zaudela, eta bai. **Gradu Amaierako Lana egin behar duzue karrera amaitzeko. GrALaren notak lagundu zizun Aparteko Saria lortzeko?**

Proiektuaren notak asko lagundu zidan. Azkenean hemezortzi kreditu dira eta oso nota ona lortu nuelako. Alemanian egon nintzen Erasmus programarekin sei hilabete, eta Gradu Amaierako Lanaren proiektua bertan egin nuen. Oso proiektu interesgarria egin nuen. *Real Time Imaging for Microfluidic Applications* izenburua du, hau da, aplikazio mikrofluidoendako irudia denbora errealean, eta zelulak eta partikulak ordena-



Asier saria jasotzeko prestatuta. UTZITAKOIA

"ENPRESA BATEAN PRAKTIKAK EGITEN ARI NAIZ ETA ESAN DIDATE JARRAITZEKO AUKERA DUDALA"

gailuan ikusteko software automatizatua zen. Ordenagailuan haiek neurtzeko, neurriak hartzeko, anotazioak jartzeko eta abarretarako egin daiteke. Biologoak software horrekin aritu ziren eta ongi egin nuela esan zidaten eta oso kontentu zeuden.

Hori dela eta hilabete bat gehiago hartu ninduten unibertsitate hartan eta esperimentu bat egin genuen software horrek balio izan zuelako, eta kontentu zeuden horrekin. Kontaktuan jarraitzen dut haiekin, unibertsitatearekin. **Ingeniari zara industrialak irteera asko ditu oso orokorra delako, eta gainera medikuntza eta biologiarekin zerikusirik duen GrAL-a egin duzu eta errekonozimendua lortu ere. Zerbait egingo duzu proiektu horrekin?**

Bai, programa handiagoa egitea nahi dute, nire zatia barnean dagoela. Proposatuta zidaten jarraitzea horretan lanean eta, ez dakit, beharbada jarraituko dut etorkizunean; ikusiko dut baina, bai, zerbait publikatzea nahi zuten.

Etorkizunerako zer espero duzu?

Unibertsitate praktikak egiten ari naiz, eta esan didate enpresa horretan jarraitzeko aukera dudala nahi badut. Baina, datoren ikasturtean European praktikak egin ahal izateko beka eskatu nuen eta eman didate. Beraz, orain praktikak egiten ari naizen enpresak Alemanian edo Frantzian delegazioak baditu, aukera bat izan daiteke beka han egitea. Aukeratu behar dut master amaierako proiektua egiteko enpresa. Helburua hori da.

Alemanian egon izanak unibertsitateko notak hobetzeko balio izan ditu?

Bai, ze pixka bat aldatzen da dena, ingurunea aldatzen da eta gauzak gusturago egiten dira. Proiektua adibidez, gustura egiten nuen desberdina zelako, banekien sei hilabete besterik ez nintzela egon behar eta ez dakit. Proiektua han egin nuen. Hizkuntza hobetzeko joan nintzen, A2 batekin joan nintzen eta B1-edo dut orain.

Alemanian ingeniari zara garrantzia handia ematen omen diote. Alemaniara joatea aukera da?

Egon nintzen unibertsitatea oso aurreratua dago ingeniari zara kontuetan. Baina, ez dakit, niri zonalde hau asko gustatzen zait eta zalantzak ditut. Denboraldi batez joango nintzateke, baina betiko ez dut uste.

Momentuz masterra amaitu behar duzu, bigarren ikasturtea egingo duzu irailetik aurrera. Zer moduz doa masterra? Aparteko beste sari bat lortzeko bidean zaude?

Ongi noa, masterra errazagoa dela uste dut. Baina ez dakit beste sariren bat lortuko dudana.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ

Euskias kopon!

Euskias kopon! Sarritan entzundako esaldia Sakanako erdialde honetan. Umeak erderaz entzutean helduek oihu egiten zieten garaikoa. Gaur egun nahi baino gehiagotan entzuten dugu gaztelaniaz gure kaleetan. Nola hazi eta hezi, duda izpirik ez dugu. Gurasoek markatutako bidean inor gutxi sartuko da haurra zuzentzen. Guraso eta haurren askatasunean haien ondorengoen jarrera eta etika bideratzen guztiak zentzudun eta jakitun, mila teoria eta iritziren jabe, etorkizunerako prestaketan esku hartzerik ez da onartzen.

Zaborra lurrera botatzen duen haurrari inork ezer esateko ausardia bera ere galdu dugulakoan nago. Euskara ikastetxeetara mugatzen den eremuek inguratzen gaituzte. Inoiz baino baliabide gehiago ditugu euskararen babeserako. Hezkuntza, administrazio, hedabide edota gobernuek beraiek ere ahalegin ekonomiko handiak egiten dituzte hura babesteko. Baina guk geuk babesten ez badugu, ez dago zer eginik.

Gure begiek ikusi zuten jendarte tradizionalan, nork zer pentsa, esan edo asma zezakeenak beldurra eragiten zuen. Gizarte itxien adibide ginen sarri, iritzi edo aukera ez ohikoek ondorio sozial gupidagabeak zituenekoa. Haiek mantentzen zuten nor bere postuan. Baina zorionez amaitu zen eredu hark, bere ezaugarri kultural eta identitario guztiakin gordetzen zuen kolektibo. Gaur egun, norbanakoak du bere esku azken erabakia. Nork bere seme-alabekin zein hizkuntzatan hitz egin behar duen, haiei zein balio eta lehentasun irakatsiko dizkien erabaki beharra du. Esku hartzerik ez dugu onartuko, baina arduraz eta garaiz jokatu ote dugu?

HARA ZER DIEN

Migrazioaren inguruan gezurretan

ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Toki askotan entzun, ikusi eta irakur dezakegu migrazio krisiaz, jende-oldeaz; gainezka gaude, ez dago denondako tokirik, deialdi efektua... eta halakoak.

Egiatek urruti:

-Ez dago inolako jende-olderik: itsasoa zeharkatu nahian milaka pertsona hiltzea; hain muturreko baldintzetan Afrikan hainbat pertsona bizitzea; eta ihesa irtenbide bakarra izatea, HORI DA LARRIA.

-Ez gaude gainezka, ez. Huelvan 17.000 emakume marrubi garairako soilik

ekartzea, jende-oldea da? Estatura 15.000 pertsona iristea? Urruti gaude Libano bezalako herrialde txiki batek egin duen bezala 1.000.000 siriar hartzetik.

-Maneia ditzakegun zenbakiak dira, eta ez kontrakoa. Estatuak urtero 84.000.000 turistari harrera egin badiezaioke, zerbitzuak eman... nola ez 15.000 pertsona migrazailerik?

-Europarena, ez da krisi migratorioa, krisi humanoa eta politikoa baizik. Hainbat pertsonak Europara iritsi nahi dute; haien kontra modu bizkorrean lanean diharduen politika xenofobo eta arrazistak indar handia hartu du. Hori da krisia, hori.

-Ez dago deialdi efekturik: erantzun gabeko deialdia dago. Afrikan gertatzen ari dena. Gu aberastu eta haiek pobretzean Iparrak dugun erantzukizunari

egindako deialdiari erantzunik ez ematean dago arazoa. Valentziara Aquarius-eko 630 migratzaile etortzea ez da deialdi efektua. Marokok dituen harresi politiken zorrotasunari egin behar zaio deialdia, politika horiek berrikus ditzan. Migrazteko bideak ziurrak izateari.

-Eta ez, migratzaileak ez daude sobera. Estatuok gizartea gero eta zaharkituago dagoela badakigu. Zertxobait hazten ari bada, migratzaileek ere zergak ordaintzen dituztelako da, lan egin eta kontsumitzen dutelako. Gainera, migratzaileen gehiengoak ez dauka Estatu espainiarra helburu, pasoko gunea da. Hemen ez dago inor sobera.

Udarekin batera, berri eskasia datorrenean, ibil gaitzen erne zer entzun, ikusi eta irakurtzen dugun.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

“Factum” eta “argumentum”

JOSE LUIS ERDOZIA

Lau kontu Urrestarazuri atzera berriz erantzun eta agur, interesgarria izan dela irau duen bitartean, esateko.

Ez omen du inor epaitu Iruña-Veleia aferan. Eskerrak! Grafitoak faltsuak direla, inolako zalantzarik gabe, berretsi bai. Sinisgarria

litzateke tartean ez bageneki duela hamar urte dagoeneko auzipetu zituztela (ezagutzen duzue beste horrelako kasuren bat?) grafitoak azaleratu zituztenekoan bi arkeologoak. Harria bota eta eskua poltsikora? Kartzela eta isun eskaera, grafitoak faltsuak izatekotan, bihurtuko dira zigor bi arkeologoendako. Eskerrak, berriz ere, ez duela berak inor epaitu, ez epaituko. Epaileak, arkeometriako azterketak (*facta*) egitea bidali

eta horiek hartuko ahal ditu kontuan, ez argudio hutsak.

Thomson jauna ez dela hizkuntzalaritzan aditua (ikerbide zientifikoan da aditu). Baina, zenbait argudio baztertzeko ez da zertan izanik aditu. Ezin da esan ezinezkoa denik edozer agertzea honako edo halako data baino lehen. Adituak esan luke ez dagoela dokumentaturik horrelako gertaerarik ordura arte. Eta, Thomsonek, “aditu” horiek

ezinezkotako jotzen zituzten hainbat gertaera, badirela erakutsi du. Besterik ez.

Bestalde, ez du *Iruña-Veleia Argitu!* manifestua sinatu duen inork esaten, grafitoak benetakoak direnik. Zalantza da zientziaren motorra, fedea den bezala dogmarena. Fedeari esker izan da mundua aurrerakuntzarik ia gabe mendeetan. Sinatzaileok bi eskaera zehatz baino ez ditugu egiten: arkeometriari gaituak diren laborategietan azter

ditzabela grafitoak, batetik; eta, grafitoak agertu zireneko tokian eta aldamenen induskatu dezatela arkeologo inpartzialek, ea gehiago agertzen diren ikusteko. Hauek bai benetako *facta*, norabide bateko edo besteko *argumenta* guztiak gaindituko lituzketenak. Nori egiten diote kalte bi eskaera horiek? Egia ezagutu nahi duen inori ez, bederen. Argumenturik gabe gera daitezkeen adituei, agian?

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua gk@gomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larrazza

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trece Obeso maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña publicitate@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu 948 564 275 948 562 107 (Faxa) 618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Plateren azpian jarriko den mahai-oihalaren zati bat.

Festak eta gu zaindu gaitezten, kanpaina prest

Jendea mahaira eserita dagoela, festetan izaten diren kontsumoez hausnartzeko eta gomendioak emateko kanpaina egin dute Leitzako, Irurtzungo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko eskualdeetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateek

SAKANA

Zain dezagun festa, zaindu gaitezten festetan leloa du kanpainak. Irurtzungo prebentzio teknikari Iosune Zabalak azaldu digunez, “kontsumitu aurretik hausnarketa egiteko aukera ematea, eta ideia argi eta erabilgarriak gogoraraztea” da kanpainaren helburua. Asmo horiek zabalteko tabernetako, elkarteetako eta festetako herri bazkari-afarrietan erabiliko den mahai-oihala egin dute.

“Asmoa da jendea bazkaltzeko edo afaltzeko mahaira eserita dagoela mahai-oihalean agertzen diren ideiez hizketatzea”, esan digu Lucia Gonzalez de Pedrosok, Etxarriko teknikariak. Plater

azpian jarriko den oihal horrek hainbat denbora-pasa ditu, eta haiek egiten dituenak mezuak eta gomendioak jasoko ditu. Horretaz aparte QR kodea ere badago, informazio gehiago eskaintzen duena.

Gizarte Zerbitzuetatik mahai-oihalarekin sei mezu zabaldu nahi dituzte. Batetik, “kontua ez da alkohol eta droga kontsumoari uko egitea kasu guztietan, kontsumo horrek gure osasuna, lanpostua edo familia kaltetu gabe disfrutatzen ikastea baizik”. Bestetik, argi utzi nahi dute “droga kontsumoa inoiz ezin da eraso bat justifikatzeko aitzakia izan”. Gomendioa ere egin dute: “atera aurretik, zer festa mota

nahi dugun pentsatu”. Eta ez da bakarra: “festetan errespetatu, zaindu zure burua eta disfrutatu!” Ardurarako deia egin dute ere: “alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzen badituzu, ez hartu kotxea, Jaibusa edo zerbitzu publikoa erabili”. Azken aholku sorta: “ez lukete alkoholik edan behar gidatu behar dutenek, haurdun daudenek edo bularra ematen ari direnek, adin txiki-koek, botika hartzen ari direnek, arriskua dakarren lana dutenek edo arriskuzko makinak gidatzen dutenek”.

20 urtez

Aipatu lau Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak 1999tik ari dira el-

karrekin udako prebentzio kanpaina antolatzen. Zabalak azaldu digunez, kanpainak hiru helburu dituzte: informazioa eskaintzea, kontzientzia sortzea eta sentsibilizazioa. Horri lotuta arriskuen murrizketa dago. Burunda mendebaldeko teknikari Eneka Irizarrek argitu digunez, “20 urtean hainbat gai jorratu ditugu, urtez urte adin jakin bati zuzenduz”. Kanpainen landu beharreko gaiak “ikusitako beharren arabera” aukeratzen dutela esan digu teknikariak, “elkarlanean, eta beste profesional batzuek (orientatzaileak, ludotekariak, gazte teknikariak,...) komentatutakoa kontuan izanda”. Jakina, aukeraketa egiterakoan “gizarte joerak eta ohiturak kontuan hartzen saiatzen gara. Besteak beste: kontsumoak orokorrean, alkohola, kanabisa, nahasketak, alkohola eta gidatzea, errespetua, tabakoa...”

Aurreko urteetan bezala, aurten ere uda hasieran, herrietako festekin batera jarri dute kanpaina martxan. “Udan festak direnez eta jendea kalean denbora gehiago egoten denez, orokorrean, kontsumitzeko aukera gehiago ditugu. Beraz, hausnarketarako momentu egokia dela pentsatzen dugu”, dio Zabalak. Orain arte kanpainak jendartean zabalteko erabili duten ohiko bidea posta bidezko bidalketa izan da. Batzuetan gazteei zuzendutakoa zen, beste batzuetan gazteei eta haien gurasoei. Gutuna zabaltean kanpainako euskarriak eta azalpenak zituzten. Joan den urtea whatsapp bidez zabaldu zuten kanpaina. Aurten, berriz, mahaira esertzerakoan opatuko dugu denborapasak dituen oihala.

Sexu-erasoen kontra Irurtzunen prest

Festetan ere emakumeen kontrako erasoak ekiditeko kanpaina martxan da


IRURTZUN

Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, eskualdeko udalekin batera “festetan aisiaz denok disfrutatzea eta kalitatezko aisia bulkatu” nahi dute. Uste baitute “festa alaitsuak izatea denon ardura” dela. Gainera, festetan izan daitezkeen sexu-erasoak ekidin nahi dituzte. Aldi berean, festa giroan emakumezkoen eta gizonzkoen arteko errespetua bulkatu nahi dute. Gazteak harremanak berdintasunean oinarritzeraz gonbidatuko dituzte. Azkenik, kanpainarekin argi utzi nahi dute festetan izaten den gehiegizko kontsumoak ez dituela inondik ere jarrera sexistak justifikatzen.

Tabernetan, enparantzan, txosnetan, elkarteetan eta herrian zehar hiru lelo zabalduko dituzte festetan: *Ez ezetza da; Toki honetan ez da eraso sexistarik onartuko* eta *Erasorik gabeko festa, gozamen handiko festa*. Izan ere, herrietako festetan bi kasu jakinetan nola jokatu zehazten duen protokoloa ondu dute. Eraso sexista baten aurrean nola jokatu azaltzen da batetik. Eta, bestetik, alkoholaren eta beste droga batzuen intoxikazio baten aurrean zer egin ere argitzen da.

Esataria: Alfredo Gaurko gaiak:

- Eneko Arretxerekin eta Unai Iturrietarekin Nepal-Euskal Herria 6.000 ekimenaz
- NUPen Ikasketa Akaberako Aparteko Sariak lortu dituzten Nahia eta Asier
- Shibuya musika talde berriko uhartearreko kideak



Ostiralero 9:30ean
SAIOA Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE



Eskola ibiltariaren aurkezpena Altsasun egin zuten.

Eskola ibiltari bat Sakanan barna ibiliko da

Ikasle Abertzaleak-ek eskola ibiltaria "uda garaia aprobetxatu, eta ikasleok gure artean harremanak sendotu, ikasi eta disfrutatzeko" antolatu du. Asteazkenean Irurtzundik abiatuko da eta Sakana 3 etapatan zeharkatuko dute eta Altsasun bukatu

SAKANA

Ikasle Abertzaleak-en udako eskola ibiltaria Sakanan bueltan da. 2009an Lizarra eta Arbizu arteko ibilbidea egin zuten ikasleek. Aurten, berriz, 3 egunetan ibarra zeharkatuko dute *Urrats bat marraztuz etorkizunean* lelopean. "Kurtsoan hamaika borroken poderioz hainbat hezigune astindu ondoren" heldu da.

Antolatzaileek ekimenari hainbat helburu jarri dizkiote. Batetik, ikasturtean zehar landu diren hainbat tokiko borroka eta ildo elkarbanatu, komunean jarri eta horien inguruan hausnartu eta trebatzea. Eta, bestetik, udarako euskarazko aisialdi proposamena eskaintzea.

Eskola Ibiltariko parte-hartzaileek egunero, goizez, herrien

arteko ibilaldiak eginen dituzte eta, behin bazkaldu ondoren egunero hitzaldi bat izanen dute, "trebatu, eztabaidatu eta hausnartzeko". Teoria praktikarekin uztartuko dute, hainbat tailer antolatu baitituzte egunero. Azken egunean, saio horiek bukatu ondoren kontzertu sorta zabalaz gozatzeko aukera izanen da.

Egitaraua

Garilak 25, asteazkena

- 10:00 Harrera.
- 11:30 Ibilaldia, Irurtzun-Uharte.
- 17:00 Dominazio kapitalista hezkuntzan hitzaldia. Tailerrak: elkartasun sareak; komunikazio politikoa, plangintza eta gaiztakeria.
- 22:00 Afarria.

Garilak 26, osteguna

- 08:30 Gosaria.
- 09:15 Ibilaldia, Uharte-Etxarri.
- 14:00 Bazkaria.
- 16:00 Feminismotik iraultza hitzaldia. Tailerrak: autodefentsa; esperientzia lokaletatik ikasiz eta okupazioa.
- 21:30 Afarria.
- 22:30 Musika girotua, Erein.

Garilak 27, ostirala

- 08:30 Gosaria.

- 09:15 Ibilaldia, Etxarri-Altsasu.
- 13:30 Bazkaria.
- 15:30 Erronka berriak, hezkuntza zer? hitzaldia. Tailerrak: margotzea, informatika-segurtasuna, ikasle presoak eta militantzia eredua.
- 21:00 Kontzertuak.

Garilak 28, larunbata

- 10:00 Gosaria.
- 11:00 Irteera autobusetan.

AHTren kontra bizikletan Martzilla eta Altsasu artean

AHT Gelditu! Elkarlanak Nafarroako Abiadura Handiko Tren korridorearen kontrako bizikleta martxan antolatu du. Oste-gunean Martzillatik abiatuko da eta 29an Altsasun bukatuko da. Azken etapa Irurtzun eta Altsasu artekoa da. Astelehenera arte eman daiteke izena ah-trikeznafarroa@gmail.com e-postan edo 628 243 066 telefonoan.

Euskaraldia Altsasun prestatzeko bilera irekia deitu dute

Astelehenean lau hilabete falta-ko dira Euskaraldia hasteko. Euskal Herri guztian azaroaren 23tik abenduaren 3ra eginen den ariketa kolektiboa da Euskaraldia. Bere helburua pertsonak aktibatzea da eta 11 egunez euskara ahalik eta gehien erabiltzea. Euskaraldia prestatzeko batzar irekia deitu dute astelehenerako, 19:30ean, Gure Etxea eraikinean.

ABIZENAK EUSKALDUNTZEKO ARGIBIDEAK

Euskal abizenak badituzu, baina agiri ofizialetan erdal grafian idatzita badituzu, euskaratzea oso erraza da eta erroldatuta zauden herriko erregistro zibilean edo udaletxean egin dezakezu.

Agiri hauek eraman behar dituzu:

- Nortasun agiriaren fotokopia.
- Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Erregistratutarik zauden udaletxean edo epaitegian eskatu behar duzu.
- Errolda agiria. Udaletxean eskatu behar duzu.
- Familia liburua. Ezkonduta bazaude edo seme-alabarik baduzu.

Oharra:

- Gurasoek abizena aldatuta, 18 urtez azpiko seme-alabenak automatikoki aldatzen dira. 18 urtez gorakoek erregistro zibilera joan eta adierazi behar dute haien ere abizena aldatu nahi dutela.





Bizikleta martxaren aurkezpena. SARE

Bizikletan, presoan gaiari konponbidea ematea eskatzeko

Orain Presoak Tourreko 3. etapa Altsasura igandean, 18:30ean iritsiko da eta ekitaldia egingen dute

ALTSASU

Orain Presoak dinamika gizar-te zibileko hainbat pertsonak martxan jarri zuten garagarri-laren hasieran "sufirimendua sortzen jarraitzen duen presoan auziari irtenbidea emateko". Azken batean, "euskal presoan eskubideak errespetatuak izan daitezela". Bere helburuak lau dira: urruntze politikarekin bukatzea, preso eta larriki gaixo dauden presoan askatasuna lortzea, presoan zigorren batuketara eta lehen gradua desegitea".

Frantziak Mont de Marsan eta Lannemezango kartzeletara 16 preso hurbildu ondoren, Madri- len espetxe politika aldatzearen alde eta bereziki urrunketa politikaren aurka esandakoak gauzatzeko ordua dela uste dute dinamikako kideek. Gogorarazi dute "astebururo ehunka senide eta lagun ehunka km egitera behartuta" daudela; "horren

adierazle tamalgarrienak dira azken asteotan senideek jasan-dako istripuak".

Dinamikaren baitan Mont de Marsango eta Zaballako espetxeen arteko bizikleta martxan antolatu dute, "orain konponbiderako unea delako eta jendar-te osoak espero dituen aldaketak eman daitezela". Bide honetan guztiei arduraz jokatzeko eskatzen diegu, norbere ideologiaren gainetik gizar-te duin eta baketsu bat eraiki ahal izateko".

Martxa gaur hasi eta astelehe-nean despedituko da. Igandeko etapa Donostian hasi eta Otzaur-teko portuan barna tropela Altsasura 18:30ean iritsiko da 85 km-ko ibilbidea osatu ondoren. Etapa bukatu berritan Foru plazan ekitaldia egingen da. Bizikleta martxa aldarrikatzaile-aren azken etapa 09:00etan abiatuko da Altsasutik Zaballako espetxerantz (88 km).

Presoen egoera zein den jakiteko bilera eskaerak

Udalak espetxe-zaintzari eta presoak dauden kartzeletako zuzendariei bilera eskatu dizkie

ETXARRI ARANATZ

Frantzian eta Espainian preso dauden Gurutz Maiza, Asier Karrera, Luis Mariñelarena, Oihan Barandalla, Hodei Ijurko, Unai Parot eta Juan Ramon Karasatorre etxarriarren egoera zein den jakin nahi du Etxarri Aranazko Udalak. Horregatik, espetxe zaintzari eta herritarrek preso dauden kartzeletako zuzendariei bilera eskaerak egin dizkiete udaletxetik. Bestetik, udal ordezkari moduan 7 presoak bisitatzeko eskaerak egin ditu udalak ere. Etxarri Aranazko Udaletik azaldu dutenez, "udal honen zeregina da herritarrek babestea. Udalaren zeregina da herritarren eskubideak aldarrikatzea eta hortaz, lehenetsuneko da, espetxean dauden etxarriarren eskubideen alde egitea".

Gaineratu dutenez, "gatazkaren konponbidean aurrera pausoak eman badira ere, estatuak euskal presoek ezartzen dieten salbues-penezko espetxe politika bere horretan mantentzen dute. Salbuespen politika horrek esku-bideak urratzen ditu eta udal honen zeregina da etxarriarren preso hauei ukatuak zaizkien eskubideen alde egitea". Urrunketak, isolamendua eta beste salatu dituzte udaletik.

Gaztelu plazatik altsasuarren aldarria

Baztandarren Biltzarreko gurdi-segizioa zabalduko dute Altsasuko Gurasoek igandean

ALTSASU

Hilabetearen 14ko protestaldia Iruñeko festetara eraman zuten Altsasuko Gurasoak eta Altsasukoak aske herri asanbladak larunbatean. 2.000 bat pertsona elkartu ziren Gaztelu plazan. Gurasoek salaketa azalarazten segitzeko eskatu zuten, "hemendik km askotara bizi direnei honen berri emateko, hedabide boteretsuen kontakizun bakarrak egia ezagutzen eragotzi dietenei". Gurasoen ordezkariak azaldu zuten, euren "seme-alaben askatasunaren aldeko bide bat zabaltzeko" lanean segituko dute, "azken finean zuendako guztien-dako askatasuna eta justiziaren aldeko bidea zabaldu nahian".

Altsasukoak aske herri asanbladako kideek adierazi zuten auzipetuak etxean nahi dituzte-la eta presoek elkartasuna adierazi zieten. Atzera ere, nabarmendu zuten "argi frogatu" dela "politika, epaitegi-, hedabide- eta polizia-muntaia baten aurrean gaudela, herri oso bat kriminalizatzeko asmoarekin eta bere bidezko aldarrikapenak isilarazteko helburuarekin. Egoera hau etenik gabe salatuko dugu". Herri asanbladatik mobilizazio dinamikarekin segituko zutela gaineratu zuten eta horretan Euskal Herriko, estatuko herrien eta Europako laguntza dutela nabarmendu zuten.

Baztandarren Biltzarra

Elizondok hartuko du ospakizuna. Baztan ibarreko biztanleak elkartzen dituen ospakizuna da etziko festa. Eta hartan aparte-ko garrantzia du herri bakoitzak propio prestatzen duen gurdi apainduak. 11:00etan abiatuko da gurdi-segizioa. Eta haien buru Altsasuko Gurasoak taldeko ordezkariak izanen dira. Antolatzaileek horrela baztandarren "elkartasuna eta babesa" azaldu nahi diete.



Larunbat goizean hasiko dira jardunaldiak.


Landa okupazioaren aldeko asteburua

Proiektzioak, eztabaida, mahai-ingura, kontzertuak, ikuskizuna eta tailerrak izanen dira

ZIORDIA

Aramauna Gune Autogestionatu- n Sasi guztien artean jardunaldiak egingen dira bihar eta etzi. Landa eremuko okupazio-aren aldeko jardunaldia da. Casa Selba (Hueska), Fraguas (Gudalajara) eta Urniza (Nafarroa) herri okupatuaren aldeko erresistentzia kutxa sortzeko beharrak ekarri du jardunaldia antolatzea. Etor daitezkeen kaleratzeen eta erresistentzien aldekoa izanen da. Izena ematen dutenek gaua gune autogestionatuaren pasatze-ko aukera izanen dute. Horretarako gela izanen da, edo kanpatzeko espazioa prestatuko dute. Parte-hartzaileak taldeetan antolatuko dira asteburuan egin beharreko garbiketara, sukalde lanak eta bestelakoak egiteko.

Bi egunetarako egitarau zabal- la prestatu dute, 10:30ean hasi-ko direnak. Barra izanen da eta han zuku eta sagardo ekologikoak, etxeko garagardoak, infusioak, granizatuak eta irabi-ki freskoak izanen dira. Bestalde, banatzaile anti-komertzialen eta artisauen postuak izanen dira. Bazkari-afarietara joateko izena eman beharra dago, bertan edo sasiguztixenartian@tutano-ta.com e-postan. Helbide bera erabil dezakete edozertan lagun- du nahi dutenek.



Lizarrusti Parketxea
www.lizarrusti.com

Aia auzoa, 2
Lizarrusti (GI)
T: 943 582 069
661 433 548
628 305 655

Larunbata gauetan zabalik
Plater konbinatuak eta etxeko hanburgesak

Txondorra larunbaterako prest

Aurtengo Arakilgo egunaren erakargarrietako bat Satrustegin dagoen txondorra izanen da. Larunbateko ospakizunean piztuko dute ikatza egiteko "labea". Baina hori hala izateko auzolan ederrak egin dituzte Satrustegin. Aurreko bietan haritz egurra moztu eta herriko intxordira eraman zuten. Horretaz aparte, txondor-plaza egin zuten ere.

Lana errematatzea falta zitzaien, txondorra egitea, eta larunbatean egin zuten. 08:00etan dozana bat satrustegiar elkartu ziren eta egurra pilatzen hasi ziren. Haiei 10:00etan beste 30 bat arakildar batu zitzaizkien. Bi ordu eta erdi behar izan zituzten forma emateko eta ia bukatzeko. Egurren gainean agotza jarri zuten eta guztia lurrez estali zuten. Biloriatik etorritako Miguel ikazkina izan zen gidari. Egindako lanak otamena merezi zuten eta hala egin zuten 11:30ean. Bigarren txondor bat egin zuten ere. Hura bukatu gabe, irekita utzi zuten, bisitariak txondor bat nolakoa den ezagut dezaten. Txondorra babesteko, satrustegiarrek aterpea egiteko asmoa dute.

Haurrak eta aktorea bisitan
Eguerdian 15 bat haurrek parte hartu zuten haiei zuzendutako tailerlean. Bakoitzak bere txondor txikia egin zuten eta ikatzarekin margotzeko aukera izan zuten. Ederki pasatzeaz aparte, garai bateko ikazkintza zer zen ikasteko aukera aparta izan zuten. Eta ikazkintzari eskainitako larunbatera arakildar berri bat gonbidatu zuten: Patxi Bisquert Manterola aktorea, Montxo Armendariz zuzendariaren esanetara Tasio filmean (1984) Urbasako ikazkinaren papera jokatu zuena. Bisquert bere seme-alabez lagunduta joan zen Satrustegiko txondorra ikustera.



Arakil egunean, bihar, piztuko duten txondorra egitera 50 bat pertsona elkartu ziren igandean.

Arakilgo eguna, hamabosgarrenez

Itsasperrin, 11:00etatik aurrera, eta Satrustegin 13:30etik aurrera, ospatuko da ibarreko festaren 15. edizioa. Udalak eguerdian omenaldia egingen du eta 14:00etan propio egindako txondorra mustuko dute

ARAKIL / SATRUSTEGI

Arakildarren senidetahun eguna Santiago Egunarekin ospatzen da. Baina aurten asteazkenean izatean udal arduradunek larunbatera aurreratzea erabaki dute, ahalik eta jende gehien elkartzeko asmoz. Ospakizunak duen egoitza bikoitzeko formatuaren 15. aldia da aurtengoa. Ohi bezala, Egiarretako Itsasperriko Santiago ermitaren inguruan elkartuko dira lehenik

arakildarrak. Han meza, udalaren omenaldia, otamena eta dantza saioa izanen dira.

Itsasperritik ospakizuna Satrustegira lekualdatuko da. Arakildarrek Mikorena etxean lau erakusketa ikusteko aukera izanen dute. Alde batetik, herriko etxeetan zeuden Playmobil popin guztiak ikusgai izanen dira. Bestetik, satrustegiar trebe batek egindako jaiotza, zei-

netan pertsonaiak motorren laguntzaz mugitu egiten diren. Horien aldamenean herriko hiruzpalau emakumek prestatutako belar eta sendabelarren erakusketa izanen da. Haiekin egindako xaboiak, kremak, usainkengarrak, ikuzgailurako-xaboiak eta beste ikusgai izanen dira. Birziklatutako arropen erakusketarekin osatzen da Mikorena etxeko eskaintza.

Autoak eta txondorra

Satrustegin bi ibilgailu zahar ikusteko aukera izanen da. Bata, 1933ko autoa izanen da. Bestea, berriz, 1926ko furgoneta. Azken hori Tasio filmean atera zen, ikatza eramaten zuten furgoneta zen. Pelikula hark ikazkin baten bizitza zuen ardatz. Eta, hain zuzen ere, Satrustegi hegoaldeko intxordira jotzen duenak txondorra-ekin topo egingen du. Auzolanean larunbatean egin zuten. Jendea hara joaten denerako txondorra piztuta eta kea darrila egonen da. Haren mustutzea 14:00etarako dago iragarria. Ondorengo bazkarian 234 pertsona elkartuko dira. Eta ospakizuna iluntzeraino luzatuko da.

ITSASPERRI

11:00 Egiarretatik jaitziera Galtxorratx dantza taldearekin.
11:30 Meza Itsasperrin, Arakilgo abesbatzarekin.
12:00 Udalaren omenaldiak.
12:15 Otamena eta Galtxorratx dantza taldearen saioa.

SATRUSTEGI

13:30 Ezkila errepika.
13:30 Erakusketa Mikorena etxean.
14:00 Trikitilariekin intxordegira eta txondorra mustutzea.
15:00 Herri bazkaria, kamarEROAK antzezlanarekin.
17:30 Mus, briska eta partxis txapelketak.
18:00 Dantzaldia Los Andusekin.
18:00 Puzgarriak.
20:00 Sari banaketa.
20:30 Zaporeak-en pintxopotea.

**Dorrauko jaietarako
2 tabernak
alokatzen dira**

Jaiak Abuztuaren
14-tik 18-ra izango
dira. Interesatuak
deitu **686202212**
tfnora abuztuaren 3a
baino lehen.

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153



Joan den urteko argazkia. ARTXIBOA

Aralarko santutegian hurrez beteko da igandean

Haurrak Aralarko goiaingeruari aurkezteko ekitaldia egingen da igandeko mezan

SAKANA/UHARTE ARAKIL

Aralarko santutegiak igandero, 12:30ean, meza hartzen du. Igande honetako berezia izanen da, euren senideekin batera adin guztietako haur ugari izanen baitira. Izan ere, Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak 15. aldiz antolatu du haurrak Aralarko goiaingeruari aurkezteko ekitaldia, meza barruan egingen dena. Txikiek eta fededun guztiek mezaren akaberan aingerua gurtzeko aukera izanen dute. Hala familiek Aralarko kofradiatik. Izan ere, garai batean santutegiak makina bat bataio hartzen zituen, baina elizaren araudiak haur bakoitzak bere parrokiaren bataioa hartzea ekarri zuen. Horren ordezko da igandeko ekitaldia.

Aurkezpeneko izena emanda daukaten hurrek akaberan pergamino eder bana jasoko dute. Hartan Aralarko goiaingeruaren lagun izendapena dute, eta hari egindako babes eskaera ere. Izena eman gabe igandean santutegira joaten direnek sakristian izen-abizenak eman beharko dituzte eta bi aste barru jasoko dituzte pergaminoak.

BAKAIKUKO FESTAK

Santiago festak bertan dira

Bakaikun festa nagusi izanen da heldu den asteazken eguerditik domekara. Maiatza lekuko dela adin guztietarako eskaintza jasotzen du udalaren egitarauak. Gainera, Bakaikuko Gazte Asanbladak, Orain presoak ekimenak eta ezker abertzaleak festetarako honako egitaraua prestatu dute.

ASTEAZKENA 25

12:00 Santio meza.

13:00 Hasierako etxajua. Buruhandiak eta japoniar-bonbak.

Bakaikuko zortzikoa.

Auzatea musikaz giroturik.

20:00 Play Back erakustaldia plazan.

20:00 Auzatea ehiztari elkar-teak emana.

22:00 Afaria. Etxean eta bizirik nahi ditugu.

20:00-22:00 eta 00:30-03:30 Dantzaldia Gabezin taldearekin.

OSTEGUNA 26

12:00 Meza adinekoen omenez.

12:00-14:00 Hour parkea eskolako belardian: puzgarriak, segway, crazy bike...

13:00 Iñaki Bizkai musikariak girotutako auzatea.



Etxajua asteazkenean botako dute plazan. ARTXIBOA

14:30 Jubilatuen bazkaria eta omenaldia elkartean. Ondoren, Iñaki Bizkaiaren emanaldia.

16:30-19:30 Hour parkea eskolako belardian: puzgarriak, segway, crazy bike...

18:30-20:00 Bertso-kantu poteo ibiltaria tabernetatik Sustrai Colinarekin eta Onintza Enbeitarrekin.

20:00 Auzatea Gabriel Aresti Barnetegiak emana.

20:00-22:00 eta 00:30-03:30 Dantzaldia Ken Bat taldearekin.

HERRI MUGIMENDUAK

ASTEAZKENA 25

ETXERA EGUNA

Jantzi euskal preso eta iheslariak Bakaikuko festetara kamiseta.

12:00 Plazako hagetan gure ikurrak jasoko dira.

Ondoren, presoek eskubideen aldeko brindisa, plazan.

19:00 Euskal preso eta iheslari politikoek askatasunaren aldeko triki poteo enkartelada, txosnatik.

22:00 Afaria. Etxean eta bizirik nahi ditugu, plazan.

OSTEGUNA 26

20:00 Zenbat gaztak? Egin apostu, plazan.

20:00 aurrera Altsasukoak Aske photocall-a, plazan.

OLAZTIKO FESTAK



Asteazkenetik hasiko dira festak Maisuenea Gazte Asanbladaren eskutik. ARTXIBOA

Santa Ana festak bertan dira

Asteazkenean hasi eta domekara arte olaztiarrak festetan izanen dira. Haiei hasiera ematen dien etxajua kultur etxetik botako dute bihar eguerdian. Hala ere, asteazkenean, 13:00etan, Olaztko Gazte Asanbladarena entzunen da, egitaraua prestatu baitute, festei egun bat gehituz.

OSTEGUNA 26

10:45 Kartel lehiaketako sari banaketa, San Migel plazan.

11:00 Zapi banaketa aurten jaiotako hurrei, San Migel plazan.

11:30 Hamaiketako lan taldeetako parte-hartzaileendako eta udal langileendako kultur etxean.

12:00 Santa Anaren omenezko festak iragartzeko suzuria kultur etxean. Kalejira La Cigarra txarangarekin. Erraldoi eta buruhandiak. Ezkila-jotze nagusia.

14:30 Jubilatuta eta adindue ndako bazkaria, Kamiogaina elkartean. Bazkalondoan dantzaldia Ciclon taldearekin.

18:00 Bordetxe abere zirkua, areto futboloko zelaian.

20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Migel plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia Gauargi taldearekin, San Migel plazan.

21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

23:30 Kontzertua: Atzapar Rock eta Los Zopilotes Txirriaos, San Migel plazan.

MAISUENEA GAZTETXEAN

ASTEAZKENA 25

GAZTE EGUNA

13:00 Txupinazoa eta trikipo-tea.

15:00 Bazkaria.

17:00 Poteo latza.

19:30 Tokan 2 La Polla.

22:00 Zezensuzkoa, areto futboloko zelaian.

23:30 Dantzaldia Eingo al deu taldearekin.

OSTEGUNA 26

KUADRILLEN EGUNA

19:00 Altsasukoak aske kontzentrazioa eta herri argazkia.

IRURTZUNGO FESTAK

Festak ekuatorean dira

Kultura Kontseilua izan zen aurtengo festetako hasiera etxajua pizteko aukeratutako erakunde. Haren izenean Patxi Mikeo Ariztimuñok piztu zuen festa-etzandari hasiera eman zion etxajua. Aurretik joan den urtean jaiotako 26 umek festetako ttattarra eta Irurtzungo erraldoien eta buruhandien konpartsaren liburua jaso zituzten. Aurrera doaz Irurtzungo festak eta asteburu bete dute. Gaur kalderete bazkarian 150 bat pertsona elkartuko dira.

Bihar 18:00etan, berriz, XXIII. Eskuorgeren Kronoigoera jokatuko da. Pikuxar euskal txokoak antolatutako proba, ohi bezala, Gernika plazan hasi eta kultur etxearen arteko joan-etorria egin beharko dute. Ibilbidean parte-hartzaileek hainbat proba pasa beharko dituzte. Antolatzaileek aurreratu dute beste proba bat gehitu diotela probari, baina ez dute beste ezer aurreratu. Jakinarazi dutena da Laas herriko parte-hartzaileak, atzera ere, Irurtzunen izanen direla. Joan den urtean bi herrietako eskuorga probak senidetu ziren eta harremanetan sakondu dute. Aurten, gainera, ETB2ko El Conquistador del fin del mundo saioko parte-hartzaileak izanen dira proban parte hartzen. Pikuxarrek ikuskizunean parte-hartzera edo hura ikusiz gozatzera gonbidatu du.

Festen azken egunean, etzi, erraldoien eta buruhandien konpartsa agurtu egingen da. Baina, aurretik, Ejea de los Caballerosko konpartsari herria erakutsiko dio, 11:15ean hasita.

OSTIRALA 20

10:00 Dianak.
11:30 Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa.
12:30 Asier eta Xabier Mikelen kontzertua.
14:00 Kalderete lehiaketaren epaia, izen ematea 13:00ak arte,



Erraldoiek, euriagatik aterpean, 2017ko kintoei harrera egin zieten.

arkupeetan.

14:30 Kalderete-bazkaria.
17:00 Bazkalondoa eta kalejira The McKensy's Cland Band umore-taldearekin.
18:00 Noeren arka: Gorriti eta bere animaliak, Gernika plazan.
19:00 Afizionatuen eskuzko pilota jaialdia.
19:00 Erremonte profesionaleko jaialdia. XIII. Nafarroako Foru Komunitate Txapelketako kanporaketa. Sarrera librea.
20:00 Dantzaldia Yatagan taldearekin.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean bukatuko da.
23:00-01:00 Ogitarteko-jan autogestionatua eta Gazte Gaua musikarekin, Gernika plazan.
00:00 Barrena, Barricadaren tributu taldearen kontzertua.
01:30 Dantzaldia Yatagan taldearekin.

LARUNBATA 21

10:00 Dianak.
12:00 Gari, Montxo eta Jose Lontxo Tutik Clownsen Txirinbolo, Foru plazan.
13:00 Alaitu bikotearen kontzertua, Foru plazan.
14:30ean Jubilatuen bazkaria, ondoren dantzaldia.
16:00-20:00 Ur-parkea: txirrista, irristagailua, spla... Gernika plazan.
18:00 Eskorga-kronoigoera.
18:30 Afizionatuen eskuzko

pilota txapelketa.

20:30 Freshcool. Tio Teroren Semeak. Euskal dantzak eta umorea.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean bukatuko da.
00:30-04:30 Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

IGANDEA 22

10:00 Dianak, gaitariak.
11:15 Ejea de los Caballeros-eko eta Irurtzungo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsen elkartzea.
14:00 Erraldoi eta Buruhandien konpartsen agurra.
17:30 Irurtzungo dantzari txikien eskolaren emanaldia, Foru plazan.
18:30 Dirt Jump eta Trial Sin

AMAYA
ARRAINDEGIA
Arrain fresko eta izoztuak
Ongi pasa festak!

Amaya, 19 - 948 50 09 53 - IRURTZUN
Obispo Huarte, 3 - 948 51 05 90 - LEITZA



Patxi Mikeo Ariztimuño etxajuaekin, kontseiluko kideez lagunduta.

ikuskizuna. Bizikletekin

egindako saltoak eta akrobaziak, Foru plazan.
20:00 Dantzaldia Joselu Anaiak.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean bukatuko da.
23:30-01:30 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.
Gauean Hau pena nik!

BARAZKI-GUNEAN

OSTIRALA 20

20:00 VIII. Txapel Jaurtiketa Txapelketa.

LARUNBATA 21

18:30 R Ke R elektrotzaranga.
04:00 Jo Ta Txo dj, txosnetan.

TIRIARTE
harategi eta urdaitegia
Jai zortentsuak pasat!

Berezitasunak
ODOLKIAK,
BETEGARRIAK, TXISTORRAK
eta LTXERO KROKETAK

948 500 087 - 639 176 529
charcuteria.iriarte@gmail.com
Lizarrakalea 8 - IRURTZUN

IGANDEA 22

22:30 Afari autogestionatua Barazki gunen. Jatekoa etxetik eraman eta edaria Barazki-gunek jarriko du.

LARRAZPI GAZTE ELKARTEKO EGITARAUA

OSTIRALA 20

23:00 Kontzertuak: Shibuya eta Against You.

LARUNBATA 21

22:00 Dj-ak: Abuelo, Brujo, Iker Allo, Iñaki Kreator, Kirikol, Koldo Zapatilla eta Unaikox.

Taxi
Jose Iturralde
629 42 80 25

Ongi pasa festak!

9 lagunendako Taxia / Irurtzun
taxijoseiturralde@gmail.com
www.taxijoseiturralde.com

Aralarko galdetegia erantzunen zain

Hirugarren urtez jarraian arkeologia-indusketa egiten ari dira Aralarko santutegi inguruan. Horma batzuek erantzun asko eman ditzakete. 300 bat gorpuzkien azterketa antropometrikoa eta kimikoa egingen dute ere

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL
Aditu arkeologia taldekoak Aralarren garagartzaroren akaberan iritsi ziren eta santutegi ondoko ostatu zaharrean hiru laborategi muntatzea izan zen haien aurreneko egitekoa. Haien buru Fran Valle de Tarazaga Montero (indusketa eta ikerketa arduraduna) eta Emma Bonthornek (osteoarkeologia, hezurduren arduraduna) dira. Aditukoak eta ikasleak arkeologia lana egiten garilaren 5ean hasi ziren. Agorriaren akaberara arte izanen dira Aralarren.

Bi hilabeteetan 30 bat pertsona ari dira arkeologia-indusketan lanean. Adituko sei kide eta boluntarioak eta beste arkeologo batzuk izanen dituzte aldamenean. Aurten etorri diren ikasleak indusketan ariko badira ere, batez ere laborategi lana egingen dute. Besteak beste Txinatik, Kanadatik, Erresuma Batutik, AEBtik edo Australiatik etorritako ikasleak dira.

Helburuak

Zamartze eta Aralar artean bederatzitan egon dira Aditu arkeologia lantaldeko kideak, eta haiekin ikasten munduan barnako hamarnaka ikasle. Bi helbururekin etorri dira Aditu arkeologia lantaldekoak Aralarren aurten. Batetik, joan den urtean elizaren ipar aldera opatutako paretan inguruan ari dira lanean. Jakin nahi dute erakuntza horrek zein funtzio zuen. Eta, bestetik, denboraldi bat identifikatu nahi lukete, lantza edo arma zauri arrastoak dituzten gorpuzkiak garai hartan kokatzeko. Haietaz gehiago jakiteko. Aurreko bi urteetan opatu ez badituzte ere, ez dute baztertu, esaterako, X. mendea baino lehenagoko arrastoak opatzea.

Indusketa-lanekin batera laborategi lana egingen dute ere. Orain arte opatutako gorpuzkien antropometria-azterketan ahalik eta gehien aurreratu nahi dute, uda akaberan kimika-azterketak azkartzeko.

Aurtengo indusketa

Elizaren iparraldean joan den urtean agertu ziren hormak berriro agerrarazi dituzte eta beharera zulatzen ari dira. Ipar-hego orientazioa duen eta 80 cm zabal dituen horma bat agertu zen 2017an. Hari perpendikularki jarritako bi kontra-horma daude. Aurreneko harriak ongi eskuairatua daude, beste biak ez eta ez dute morterorik.

Behera zulatzean “zer gertatu zen jakin nahi dugu. Susmoa dugu horma horiek informazio asko eman diezaguketela. Lehen mendeetako edo, gutxienez, X. edo XI. mendeetakoak. Berritze handietarako trantsizioa. Ongi legoke, Erdi Aroko azken etapako eliza besterik ez baitugu ezagutzen”. Mendebaldean ateratzen diren kontra-hormak geroago eraiki zirela, “horma berrerrabiltzeko” izan zela esan digu Valle de Tarazagak. U itururako egitura osatzen dute paretak eta inguru horretan joan den urtean “indarkeria-jardun baten zantzuak” opatu zituzten, urrutako zilarra eta beste.

Mendiaren berezko harriraino zulatu nahi dute. “Zulatzen ari garen tokia eliza ondoko puntu altuena da. Bukaeran sorpresa izan dezake”. Izan ere, inguru horretan estratigrafia metro bat baino gehiago jaisten da.

Aditukoak harriritu daude XI. eta XII. mendeen aurreko ezer ez opatzeagatik. “Zerbait egon behar da, ziur”. Arrasto horiek biziraun duten esperantza dute. Elizaren absidearen ondoan ze-

goen hilerrian “sedimentazioa askoz ere eskasagoa zen. Egiturari dagokionez, XIII. eta XIV. mendeari dagozkionak opatu genituen”.

Hormen ikerketak “Aralarko santutegia XI., XII. mendeetan, edo pixka bat lehenago, nolakoa zen berreraikitzen lagunduko digu. Suposatzen dugu XIII. mendeko, eta agian XIV. mendeko gatazken ondoren, Aralarrek nahikoa sufritu zuela. Baina gero egonkortu egin zen. Horrek esan nahi du ziurrenik defentsak ez zituztela beharrezkotzat joko, defentsak erabiltzeari utziko ziotela eta espazioak birkokatu zirela. Baina, ondoren, espazio horietako batzuk suntsituta zudela eta arma arrastoak zeudela opatu dugu. Beraz, posible da ondoren egiturak defentsa gisa erabiltzen ez baziren ere, erasoak jaso zituztela. Guztia 1512ko Nafarroako konkistarekin bu-

"LITEKEENA DA AURTENGOA AZKENA IZATEA. LEHENGOAN ESAN GENUEN ETA 3 URTE DARAMAGU"

ARKEOLOGOAK HARRITUTA DAUDE XI. ETA XII. MENDEEN AURREKO EZER EZ OPATZEAGATIK

"EREMU ZEHATZ BATEKO 300 BAT GIZABANAKO. INFORMAZIOA OSO FIDAGARRIA DA"

katu zen, muga izateari utzi baitzion”.

Laborategiak

Ikasleak ez dira soilik indusketan ariko. “2017an baino laborategi gehiago prestatu ditugu, gorpuzkiak bertan aztertzeko”. Ikerketa buruak esan digunez, “ahalik eta gorpuzki gehien prozesatu nahi ditugu. Hiru laborategi dituzte eta bakoitzean lantalde bat ariko da. Zamartzen eta Aralarren opatutako 190 bat gorpuzki osoen azterketa antropometrikoa egiten dute: adina, altuera, traumatismoak, izan zitzaketen gaixotasunak... Hilobiak berrerrabili egiten zirenez, ohikoa da solte gelditu diren hezurak opatzea eta halako guztiak, dagoeneko, aztertu dituzte, “nahiz eta eskeleto oso batek adina informazio emateko gaitasunik ez izan”.

Joan den urtean hasitako lana aurten despeditu nahi lukete, uda eta udazkena bitartean. Azterketa antropometrikoaren ondoren, azterketa kimikoaren txanda izanen da. Horretarako, lantaldeko aditua etorriko da. Lan horiek heldu den urte hasierarako despedituak nahi lituzkete. Ondoren memoria idatzi eta Uharte Arakilen aurkezpena egingen lukete. Gainera, aldizkarietan artikulatuak argitaratuko lituzkete.

Laborategiko lana

Arkeologia-eskola denez, “indusketan ari diren gazteak beti lan bera egiten ez egoteko, lantalde batetik bestera pasatzen dira, hainbat lan egin eta hainbat arlotan eskarmentua izan dezaten”. Inolako azterketa egin aurretik gorpuzki guztiak garbitu eta prozesatzen dituzte. Ondoren lehortu eta egoki etiketatutako poltsetan sartzen



Aralarren arkeologoak egiten ari diren lanak larunbat



ero, 11:00etan, bisitatu daitezke.

dituzte. “Gehienak garbi daude, gutxi batzuk besterik ez dira gelditzen”.

Laborategi bakoitzean mahai handi bat eta argi zuria jarri dituzte azterketa antropometrikoak egiteko. “Gorpuzki guztiek fitxa zehatz bana dute”. Lehenik, identifikatu egiten dituzte. Ondoren, gorpuzki bakoitzaren inbentarioa egiten da, bakoitza zenbat hezurrez osatua dagoen. Hurrengo pausoetan zehazten dira: generoa, hil zenean zenbat urte zituen, bizi zela zein altuera zuen, hortzen informazioa (gertatu zaienaren inguruko informazio handia ematen dute hortzek) eta traumatismoa (kolpeak) eta patologia (gaixotasunak) arrastoak dituzten begiratzten dute. Lan horiek eginda gorpuzki bakoitza prestatu duten argazkilaritza-estudio batera eramane eta han eskeleto bakoitzaren argazkiak egiten dituzte. Irudiak publikatzeko eta artxiborako izanen dira.

Antropometria-azterketa despeditu ondoren, azterketa kimikorako lagin bat ateratzen diete, gorpuzkiak poltsetan sartu aurretik. “Isotopo analisiarekin jakin ahal izanen dugu haien dieta, zein eskualdetik heldu diren, bakarren bat kanpokoak ote den...” Valle de Tarazagak esan digunez, “interesgarriena zertaz elikatzen ziren jakitea da. Garai hartako populazioaren profila ezagutzeko oso interesgarria izanen baita”.

Ikasleek segitu beharreko metodologiaren berri ematen duen gida-liburua dute eskura. Valle de Tarazagak esan duenez, azterketa prozesuan ikasleek hainbat teknika ikasten dituzte eta “haiendako aberasgarria da. Horrek gure ikerketa hain sakon eta zehatza izaten laguntzen digu, metodologia bakarra erabili beharrean hainbat konbinatzen ditugulako”.

Perimetrao

Santutegiaren eremua inguratzen duen zirkulu erdiko egitura bat atzeman zuten joan den urtean, lurra “hozkatuta” balego bezala zegoela ohartu ziren. Elizaren inguruko muga borobil bat. Elizaren eta kofradia etxearen mendebaldera zulatuta egindako oinarri bat ikusi zuten. Oinarri horren gainean pareta bat dago, lurrari itsatsia dagoena, “muga bat markatzeko”. Iparraldean efektu bera lortzeko

haitza tailatuta dago, forma emanda dago. Temenos izena duen egitura litzateke, santutegiari eskainitako espazio erreserbatu bat.

Hori guztia argitzeko, aurten beta izanez gero, arkeologoen lagin zuloak egin nahi dituzte, euren susmoak zehaztu ahal izateko. Indusketa buruak aitortu duenez, “temenos izena erabiltzea baieztatu arte, nahiko ausarta da. Oso gutxitan dagoelako. Sakratua markatzen ez badu, legalki elizaren jabegoa markatzen du. Elizak agintea zuen eremua. Han lege kanonikoa zen indarrean, bestaldean zibila”. Aita Burgik 1774ko deskribapenean dio Artxueta magalean komunitate edo herrixka baten arrastoak ikusten zirela.

Ikerketaren ondorioez

Indusketa buruak aitortu du gorpuzkiak “informazio handia ematen” ari direla. “Eta gehiago ematea espero dugu, ikertzeko asko gelditzen zaigulako”. Zehaztapena egin digu: “informazio horren balioa kopuruak ematen du. Ez da 10, 15, 20 gorpuzkitan oinarritutako azterketa. 148 hezur solte eta 190 bat hezurdu oso dira. Eremu zehatz bateko 300 bat gizabanako. Estatistika egiten dugunean ematen digun informazioa oso fidaagarria da”. Guztia duela 500 edota 800 urteko pertsonen bizitza berregiteko. “Ia ez dugu daturik, Nafarroako Erresumako dokumentuak salbu. Eta hemen datu frogagarriak eta errealak izanen ditugu. Ez da historialari baten interpretazioa, edo errege-kronista baten interpretazioa. Pare pare ditugun pertsonen bizitza da”.

Historia idatziko duten galde-tuta, baiezkotan da Valle de Ta-

razaga. “Gorpuzkien azterketaz aparte, indarkeriagatik sortutako trauma arrastoak daude hezurretan, hainbeste arma opatzea, Erromatar garaiko Zamartzeko suntsiketak... Dena elkarrekin jarri, eta narrazio eran jartzean, historia oso osatua emanen dugula uste dugu. Berritasun handiekin. Ezezagunak ziren elementu asko: mero-vingioen presentzia, Zamartzeko mansioa bitan suntsitu zela, oso erromatarra zen populazioa bat egotea... Gaur egun halakoak, edo susmoak dira, edo ez ditugu buruan. Sakana duela 1.000-1.200 urte nolakoak zen jakiteko ekarpena egitea pozgarria da guretako”. Aditukoek euren lan-bizitzako ia 10 urte “inbertitu dituzte” horretarako.

Suposatzen da arkeologia-lanak aurten despedituko direla. Euren asmoa da publikazioak, artikulak sortzen hastea eta “zientzia edo arkeologia arlo hutsetik aparteko hitzaldiak ematea, orduko jendearen egunerokotasunari buruzkoa, gauzak hemen nolakoak ziren azaltzeko”.

Bestetik, Nafarroako zientziakorpusari ekarpena egin nahi diote. “Nafarroan arkeologia oso garatua dago. Ikerketa ugari eta ona dago. Inguru hauetan hegoaldeko lautadetan baino zailagoa izan baita indusketak egitea. Orain lan ona egiten ari bada ere, emaitzak iristea falta da. Jendeak ezagutu dezala historiaren garai ilun bat gisa deskribatu dena: zer gertatu zen antzina hemen, Erdi Aroan. XV.-XVI. mendetik aurrera argibideak daude, pixka bat aurrekoak agian, baina jendearen egunerokotasunak misterioa izaten segitzen du”, esan du ikerketa buruak.

Udala

Aurten Uharte Arakilgo Udalarekin elkarlana sakondu dela jakinarazi digu Valle de Tarazagak. “Ideia da gurekin batera, udala indusketaren sustatzaileak izatea. Asmoa bikoitza da. Alde batetik, gurekin beti parte hartu duen udala indusketan gehiago bustitzea. Gu, ia, bukatzen ari gara eta haiek izanen dira euren ondarea kudeatuko dutenak, nolabait esatearren, oinordetzan jasoko dutenak. Haiek kudeatzen dutelako herriko ondarea”. Indusketa elizaren eta Uharteko herri lurretan egiten da aurten.

Boluntario izan nahi?

Arkeologia-indusketan lagundu nahi dutenek aukera badute. Indusketatik pasa daitezke edo info@aditu.info e-posta helbidera mezua bidali behar da. Interesatuak jakinarazi dute noiz aritzeko aukera duten eta zenbat orduz.

Irurtzango Atakondoa eskola handitzeko lanak hasi dira

Hilabetea hastearrekin batera Construcciones Martinez Sanchez Cintruenigo enpresa Atakondoa eskolan lanean hasi zen. Juan Antonio Ascunce Izuriagak eta Patricia Ilarraz Itozek idatzi dute handitze proiektua. Ardu-bil kaleari paralelo, haren altueran egonen da eraikin berria eta beheko zatia eskolako patio-ko estalpea izanen da. Lehen hezkuntzako 6 gela gehiago izango ditu ikastetxe publikoak, ikasle eta irakasleendako komun berriak (patioan ere komun bat eginen da), biltegia, 3 bilera gela, larrialdietarako eskailera eta ekintza klasifikaturako egokitzapena. Guztia 491,45 metro karratutan banatuta. Lanek 914.203 euroko aurrekontua dute. Gauzak ongi, lanak azaroaren 30erako despedituta egonen dira. Eraikinean bigarren solairua egiteko aukera dago etorkizuneari.

Atakondoa LH eta DBHko 1. eta 2. mailak daude. Ez dago DBH 3. eta 4. mailarik, ezta 0-3 ziklorik ere. Eta hala ere, 2010-2011 ikasturtetik espazio falta dute. Sarreran moduluak jarri eta bi gela prestatu zituzten lehenik. Beste bi egokitu zituzten hurrengo kurtsoan, lanak bukatuta han segituko dutenak. Irurtzunen aspaldi eskatzen ari dira DBH guztian herrian egitea.

Altsasuko udaltzain izateko deialdian lanpostua gehitu da

Altsasuko Udalak martxan du udaltzain bat kontratatze deialdia. Haren oinarrietan jasoa dago lanpostuen kopurua handitu daitekeela hautaketa prozesua bitartean eta lanpostuen hautaketa egin baino lehen. Deialdiaren proba guztiak egin da, bik gauditu dituzte proba guztiak. Hurrengo tramitea lanpostu hutsen hautaketa da eta hori egin aurretik udalak erabaki du deialdiari beste lanpostu bat gehitzea. Gainera, udalaren plantilla organikoan bi udaltzain lanpostu huts daude, joan den urtean jubilatuetakoenak.

Javier Ollo Martinez alkateak esan digunez, bi udaltzain horiek Nafarroako Segurtasun Eskolaren hurrengo kurtsoan parte hartuko dute. Ollok aurtien beste bi udaltzain posturako deialdia egiteko nahia azaldu digu, "hala bi deialdietako lau udaltzainek ikastaroa elkarrekin egitea lor dezakegu". Bestalde, 2014an gobernuaren bidez udalak egindako hiru lanposturen deialdiaz, alkateak jakinarazi digu aurki udaltzain postuak betetzeko aurkeztutako behin-behineko pertsonen zerrenda Nafarroako Aldizkari Publikoan argitaratzea espero duela. Gaur egun Altsasuko Udaltzaingoak kaboa eta bi laguntzaile ditu.


Euskara akademia-hizkuntzatik harremanetarako hizkuntzara

Ikasleek ikuspegia aldatzeko eta euskararen erabilera sustatzeko atsedendietan programa egiten da

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako atsedendietan haurren euskararen erabilera sustatzeko programa bat kudeatzeko laguntza tekniko kontratatuko du. Patio garaian egindako esku-hartze horren bidez ikasleek euskara haien harremanetarako hizkuntza natural gisa hartzea bultzatu nahi da, bideratutako jolasen eta bestelako bidez. Hala, euskara akademia-hizkuntza baino gehiago dela azaldu nahi zaie.

Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago eta ibarreko 12 ikastetxeetako 47 talderekin egiten da otsailetik aurrera. Mank-ek urte baterako kontratua eman nahi du, gehienez ere lau urtera arte luzatu daitekeena. Kontratuaren urteko prezioa 15.000 eurokoa da (BEZ kanpo). Sakanako Mankomunitateak lana eskaintza onuragarrienari emanen dio. Interesa dutenek euren proposamenak hilaren 30eko 13:00ak arte aurkez ditzakete ibarreko erakundearen egoitzan.



Joseba Ezkurdia eta Beñat Rezusta, Sanferminetako Binakako Torneoaren irabazleak, irabazi dutela ospatzen. ASPE

Ezkurdia, sanferminetako pilotaririk onena

PILOTA Joseba Ezkurdiak eta Beñat Rezustak irabazi zuten Sanferminetako Binakako Torneoaren irabazleak, Iker Irribarriari eta Jose Javier Zabaletari 22 eta 16 irabazi eta gero. Bigarren urtez jarraian dira txapelak Ezkurdia eta Rezusta

Sanferminetako Pilota Torneoaren finala ikusgarria izan zen, zaletasuna sortzen dutenetakoa. Denetatik izan zuen: joko bikaina, erremontada, urduritasuna eta ikusgarritasuna.

Irribarria eta Zabaleta izan ziren aurreratu zirenak eta alde ederra hartu zutenak, baina Ezkurdiak ardura hartu zuen, eta, azkenean partidari buelta ematea eta 22 eta 16 irabazte lortu zuten berak eta Rezustak. Bigarren urtez jarraian sanferminetako binakako torneoaren txapelak izan ziren.

2017ko sanferminetako torneoaren irabazleak aurreratu zuten Joseba Ezkurdia, Zabaletarekin Binakako irabazteak benetako bultzada eman zion eta aurreratu bikain horri eusten dio arbuzuarrik, bera pilotu trebea

180 graduko buelta

Finaleko giroa ederra zen, sanferminetako peto petoa, eta Labriten zegoen tenperatura ere halakoa zen. Berotzarra. Irribarria

eta Zabaleta hasi ziren hobeto. Irribarria oso ongi aritu zen aurreko koadroetan eta Zabaletak dominatzen zuen atzean; aldiz, Rezustari kosta egin zitzaion partidaren sartzea; Ezkurdia eta Rezusta ez zeuden eroso. Horrela, 6 eta 13 aurreratzea lortu zuten Irribarriak eta Zabaletak, bikain jokatu.

Baina hortik aurrera finalaren norabidea arraso aldatu zen. 180 gradu. Pilota aldatu eta Ezkurdiak partidaren ardura bere gain hartu zuen; sakez min handia egin zuen, eta atzeko koadroetan joera aldatu eta Rezusta hasi zen dominatzen; bestalde, Irribarriaren inspirazioa eten egin zen. Horrela, tantoak pilotzen hasi ziren Ezkurdia eta

EZKURDIK PARTIDA ERABAKIGARRIETAN ERE ARDURA HARTU ETA GAKOA IZAN DAITEKEELA IKUSI DA

Rezusta eta 14ra berdintzea lortu zuten, hortik aurrera partida kontrolpean hartu eta tantoak bata besteari atzetik egin ahal izan zituzten. Azkenean, 16 eta 22 irabazita sanferminetako txapel preziatua jantzi zuten bigarren urtez jarraian.

Txapelaz gain, finaleko eta torneo guztiko pilotaririk onenaren saria jaso zuen Joseba Ezkurdiak, merezitakoa. Finalak argi utzi du Ezkurdiak partida erabakigarrietan ere ardura hartu eta gakoa izan daitekeela.

Ezkurdia: "Sufritzen jakin dugu"

Pozik zegoen Joseba. "Atzetik gindoazenean partida luzea gertatzen zela bagenekien eta sufritzen jakin izan dugu, ondoren irabazteko" azaldu zuen. "Ongi jokatzeko ari ginen, baina beraiek abiadura handia sartu diote pilotari eta kontraren aritzera behartu gaituzte beti" aipatu zuen Irribarriak. Gasteizko Andra Mari Zuriaren Torneoaren irabazleak, hurrengo zita.



Alegria Bengoetxearekin, Iruñean jokaturako 2002ko Mundialean. PATXI CASCANTE

Migel Angel Alegria eta Martin Bengoetxea pilotariei agur

PILOTA Lakuntzako eta Altsasuko bi pilotari profesional ohiak egunotan despeditu dituzte

Bere garaian pilotari finak izandako Martin Bengoetxea Lezea, Bengoetxea II.a, eta Migel Angel Alegria Alegria egunotan zendu dira. Lehena Altsasun eta bigarrena Lakuntzan.

Migel Angel Alegria (1933, Lakuntza) eskupilotan aritu zen. Afizionatuetan, 1962. urtean Iruñean jokaturako munduko pilota txapelketan txapelduna izan zen Alegria, eskuz binakako modalitatean. Vergara I. pilotariarekin bikotea osatuta, Etcheto eta Mugikari (Frantzia) irabazi zieten Labriten jokaturako partidaren. Halaber, Espai-

niako txapelduna izan zen, lau aldiz: 1959an, 1962an, 1964an eta 1967an. 1967ko finala Bartzelonan jokatu zuen Alegriak, Domingo Nagorerekin bikotea osatuta, eta 22 eta 20 irabazi zieten arerioi. 1968an profesional mailara iritsi zen. Kirol munduaz aparte, Lakuntzako alkate ere izan zen Alegria. Uztailaren 16an hil zen, 85 urterekin.

Bestalde, Martin Bengoetxea Lezea pilotari altsasuarrak Bengoetxea II.a izenarekin jokatu zuen pilotan eta pilotari ezaguna izan zen. Uztailaren 8an zendu zen, 76 urte zituela.



ASPE

Martija Navarra Arena probatzen

PILOTA Navarra Arenako frontoia probatu dute Martijak, Irribarriak, Olaizolak eta Mariezkurrenak. "Polita, handia baina oso gertua, beroa eta atzelariendako frontoi exigentea" zela esan zuten. "Frontoi ona da, itxura ona du. Frontisean eta zoruan pilota ongi dabil eta pista Ogetakoaren antzekoa da. Atzean oso exigentea, dominatuta bazaude, frontoi zaila". Martijaren hitzak.

Puntako erremontistak gaur Irurtzunen

ERREMONTEA Gaur, 19:00etan, hasiko den jaialdian Nafarroako Foru Komunitatearen Erremonte Txapelketako final laurdenetako partida dago jokoan: Uterga-Etxeberria III.a vs Urtasun-Barrenetxea IV.a

Irurtzungo festetan bere lekutxo egiten ari da erremontea eta aurten ere hala izango da. Horrela, Nafarroako Foru Komunitatearen Erremonte Txapelketako partida bat hartuko du Irurtzunek, gaur, 19:00etatik aurrera, Irurtzungo kiroldegian.

Pilotariak, hasteko

Eskuz binakako partida batek zabalduko du jaialdia. Horrela, Irurtzun klubeko pilotariak lanean ikusiko ditugu. Alberto Ongay satrustegiarrak eta Azanzak Olo eta Bergera arruazuarra izanen dituzte aurkari. Klubeko oilarrak elkarren kontra. Eta ondoren, Nafarroako Foru Komunitatearen Erremonte Txapelketako final laurdenetako partida jokatu dute Utergak eta Etxeberria III.ak, Urtasunen eta Barrenetxea IV.aren kontra. 35 tantora jokatu dute eta onenek txapelketan jarraitzeko aurrerapauso sendoa egingo dute.



Barrenetxea IV.a, irudi ikusgarri batean. ORIAMENDI 2010 REMONTE

Pilota gehiago

Erremonte jaialdia zabalduko duen pilota partidaz gain, Irurtzungo festetan larunbatean, 18:30ean, afizionatuen mailako pilota txapelketako partidak jokatu dira.

Eskorga igoera

Irurtzungo festetan eliza eta Kultur Etxea bitarteko aldapa gogorretan jokatzen den eskorga kronoigoerak ez du huts eginen. Larunbatean jokatu da, 18:00etan.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Aristorena San Fermin Palako txapeldunordea

PALA Aurreko ostiralean San Fermin Pala Torneoko finalak jokatu ziren. Emakumezkoetan, Yanira Aristorena etxarriarra eta Maite Ruiz de Larramendi ziren torneoa irabazteko faboritoak, baina Larrarte eta Erasun gazte gipuzkoarrek sorpresa eman zuten eta 2

eta 0 irabazi zieten faboritoei (10 eta 4 eta 10 eta 4). Horren gazte izateko sekulako heldutasunarekin jokatu zuten gipuzkoarrek. Erasun izan zen finaleko protagonista: oso ziur jokatu zuen eta soilik akats bat egin zuen.



Aurreko urteko Ziordiko futbol txapelketa. ARTXIIBOA

Sei futbol talde Ziordiko lehian

FUTBOLA Larunbatean jokatu da Ziordiko Futbol 5 Txapelketa solidarioa, goizeko 09:00etatik aurrera, Ziordiko txipudian. Finala 17:20ean hasiko da

Bihar, larunbatean, uztailearen 21ean jokatu da Ziordiko I. Futbol 5 txapelketa. Txapelketa solidarioa da, Dravet Sindromearen Fundazioaren aldekoa. Ziordiko Udaleko kirol Batzordeak antolatu du, hainbat babesleren laguntzarekin.

Sei talde

Ziordiko txapelketan sei taldek eman dute izena: Ziordia, Urdiaín, Leones Atlas, Rayo Vayacano, Futsal Sakana eta Rochling Araia. Talde bakoitzak 30 euroko inskripzioa ordaindu zuen eta bildutakoa Dravet fundazioarendako izango da. Izena eman duten taldeekin 3 taldez osatutako bi multzo egin dira eta

multzo bakoitzeko bi onenak finalerdietarako sailkatuko dira.

30 minutuko partidak

Partida bakoitzak 30 minutuko iraupena izango du, eta taldeak atezainaz eta 4 jokalariz osatuta egongo dira, eta aipatzekoa da partidaren barna nahi adina aldaketa egin ahal izango dituztela taldeek.

Final handia 17:20 inguruan jokatu da eta bukaeran 6 talde parte-hartzaileek saria jasoko dute eta Dravet Fundazioaren aldeko zozketa egingo da.

Bestalde, Lakuntzan ere hasiera eman zaio Biltoki Areto Futbol Txapelketari. Asteburutako jokatu dira partidak.

Ziordiko Futbol 5 Txapelketa

Ziordiko Txapelketa goizeko 09:00etan hasiko da eta 18:00etan sari ematea egingo dute

Ligaxka

- **09:00** Ziordia – Urdiaín
- **09:50** Leones Atlas – Rayo Vayacano
- **10:40** Ziordia – Futsal Sakana
- **11:30** Leones Atlas – Rochling Araia
- **12:20** Urdiaín – Futsal Sakana
- **13:10** Rayo Vayacano – Rochling Araia

Finalerdiak

- **14:00** 1. A / 2. B
- **14:50** 2. A / 1. B

Finalak

- **15:40** 5. eta 6. postuak (multzoko 3. sailkatuek)
- **16:30** 3. eta 4. postuak (finalerdietako gaitzaileak)
- **17:20** Final handia (finalerdietako txapeladunak)
- **18:00** Sari banaketa 6 talde parte-hartzaileei eta Dravet Fundazioaren aldeko produktuen zozketa



BURUNDA TXIRRINDULARITZA TALDEA

Hugo Aznar txapeldun Mungian

TXIRRINDULARITZA Esprintean erabaki zen kadeteen Mungia XIX. Santiago Sarian. Quesos Albenizko Hugo Aznar izan zen txapelduna (1:09:36) eta Intersport Irabia taldeko Aitor Alberdi hirugarrena. Burundako Quesos Albeniz taldeak jaso zuen probako talderik onenaren saria.

Kirol klubendako diru-laguntzen deialdia Altsasun

KIROLDEGIA Altsasuko Udaleko aurrekontuetatik 23.600 euro bideratuko dira aipatu diru-laguntzarako

Altsasuko Udalak 2018an kirol jarduerak sustatzeko kirol klub eta elkarteendako diru-laguntzen deialdia egin du. Altsasuko Udalen 2018 urteko Aurrekontu Orokorretatik 23.600 euro aurreikusten dira diru-laguntza deialdi honetarako.

Helburua

Helburua kirol klub eta elkarten bitartez Altsasun kirol jarduera sustatzea da. Horrela, kirol klub eta elkartei kirol programak garatzen lagunduko zaie, lehiakorrak direnak eta ez direnak. Bestetik, kirol jarduera biztanleriaren sektore guztiengana heltzea sustatuko da, emakumeen kirola bereziki bulkatuz. Halaber, dibertsitate funtzionala duten pertsonendako kirola bulkatuko da. Hirugarrenik, kirol asoziazionismoa finkatu nahi da. Eta, kirolari buruzko gaietan tokiko

kirol erakundeen eta Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuaren artean arduraz egin beharreko koordinazioa, lankidetzeta eta kooperazioa bulkatuko da.

Lau atal


Lau ataletan sailkatzen dira deialdi honetan diruz lagunduko diren kirol jarduerak: 16 urtetik gorakoendako kirol jardueren programa, klubak modu egonkor eta jarraituan garatzen duena; kirol ekitaldiak; festetako eta ferietako kirol ekitaldia eta 16 urte bitartekoendako jarduera bereziak.

Aldizkari Ofiziala

Eskaerak Altsasuko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, hurrengo 15 egun naturaletan.

Floresek lider jarraitzen du

AUTOMOBILISMOA Asteburuan Pujada Alp 2.500 mendi lasterketa jokatu zen. 2. kategorian lehia oso estua izan zuten Garikoitz Flores lakuntzarrak (BRC B49, 6:16.405) eta Arkaitz Ordokik (BRC B49, 6:15.951). 454 ehunekorengatik irabazi zuen bigarrenak. Hala ere, Floresek Espainiako Mendi Txapelketako 2. kategoriako lidergoa sendotu zuen.



UTZITAKOA



Erlojupeko txapelketa denez, txirrindulariak banaka banaka ikusteko aukera aparta da igandekoa. ARTXIBOA

Iturmendik erabakiko ditu erlojupeko txapelkunak

TXIRRINDULARITZA Igandean, 09:30etik aurrera, txirrindulari afizionatuak, jubenilak eta kadeteak lehiatuko dira. Afizionatueta eta jubeniletan Nafarroako eta Euskadiko erlojupeko txapelketak daude jokoan eta kadeteetan, aldiz, soilik Nafarroakoa

Igandean txirrindulariek hitzordu garrantzitsua dute Iturmendin. Gizonezkoek eta emakumezkoek. Izan ere, VII. Iturmendi Trofeoa jokatu da, aldi berean Nafarroako eta Euskadiko Erlojupeko Txapelketa dena. Afizionatuen eta jubenilen mailan Nafarroako eta Euskadiko Txapelketa izango da Iturmendin.

dikoa eta kadeteen mailan, aldiz, Nafarroakoa. Hortaz, txirrindulariz beteko da Burundako herria, txapelketa garrantzitsua baita.

Etzi, goizeko 09:30etik aurrera Afizionatuak izanen dira lehenengoak abiatzen. Goizeko 09:30ean hasiko dira lanean. Eliteak eta 23 urtez azpikoak,

gizonezkoak eta emakumezkoak, banaka-banaka ekingo diote 14 km osatzeko lanari. Arbizuko industrialderaino iritsiko dira eta handik buelta hartu eta, atzera ere, Iturmendira helduko dira. Ondoren, 10:00etan jubenilen mailakoak hasiko dira. Hauek ere 14 kilometroko buelta egin beharko dute, afizionatuen

buelta berbera. Azkenak kadeteak izango dira, 11:00etatik aurrera. Kasu honetan 10 kilometroko distantzia bete beharko dute. Etxarriraino iritsi eta hango errotondan hartuko dute buelta, Iturmendiraino.

Aurreko urtean, Iturmendiko Trofeoan, afizionatueta Euskadi Fundazioko Diego Lopez (17:26) eta Bizkaia taldeko Lourdes Oiarbide (19:36) gailendu ziren; juniorren mailan Elproexeko Oier Lazkano (17:47) eta Sopolako Sara Martin (21:26) eta kadeteetan Quesos Albenizko Unai Aznar (13:29) eta Gipuzkoako Garazi Estevez (15:54).

Ailetz Lasa 12.a Aiegin

Igandean juniorren mailako XXII. Aiegiko Udala Trofeoa jokatu zen, Euskal Herria Torneorako baliagarria. Lizarte-Ermitagaña taldeko Diego Uriarte bakarrik iritsi zen helmugara (2:08:15) eta berarendako izan zen Aiegiko trofeoa. Quesos Albenizko Ailetz Lasa 12.a sartu zen, El Caserio-Valsai taldeko Jon Gil 31.a eta Intersport Irabiako Xabier Mauleon eta Urko Gorriti 48.a eta 49.a.

NAFARROAKO ETA EUSKADIKO ERLOJUPEKO TXAPELKETAK DAUDE JOKOAN ITURMENDIN

Etxeberria 29.a Europako Txapelketan

Asteburuan junior eta 23 urtez azpiko mailetak Europako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren Txekiar Errepublikan. Junior mailako Espainiako selekzioarako deitu zuten, beste behin, Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria.

Txirrindulari iturmendiarrak igandean Brno eta Zlin arteko 119 km-ko lasterketan parte hartu zuten. Erlojupeko proba irabazteko zetorren Remco Evenepoel belgiarrak eraso jo zuen hasieratik. Soilik Espainiako selekzioako Carlos Rodriguezek jarraitu ahal izan zuen bere erritmoa, baina zirkuituari hirugarren buelta ematerakoan ezin izan zion eutsi eta Evenepoel bakarrik egin zuen aurrera, etapa irabaziz (3:15:19). Espainiako selekzioako Carlos Rodriguez hirugarrena sartu zen. Josu Etxeberriari dagokionez, Iturmendikoa 29.a sailkatu zen, 15:45era (3:31:04).

MENDIA Irurtzungo Iratxo taldearekin, Pirinioetara

Irurtzungo Iratxo mendi taldeak Pirinioetara bi irteera antolatuta ditu. Lehena uztailaren 28an izanen da, Punta Agüerrira (2.447 m) Gabarditotik igotzeko martxa. Bospasei orduko ibilaldia da, bazkaria Bisalticon egingen dute eta goizeko 06:00etan jarri dute hitzordua, Iratxon, autoz joateko. Aurretik izena eman behar da.

Bigarren irteera abuztuaren 24an eta 25ean izanen da. Panticosa eta Sallent artean zeharkaldia egingen dute. Autobusa abuztuaren 24an aterako da, 16:30ean. Bi aukera daude: zeharkaldia egitea edo Panticosa ikusi, teleferikoan igo, balneariora joan... Izena ematea zabalik dago abuztuaren 15era arte Iratxon.

Frantziako Tourra, Alpeetatik Pirinioetara

TXIRRINDULARITZA Alpeetako etapa gogorrenak despedituta, asteartean Pirinioetara helduko da proba

Igandean Tourreko galtzadarrien etapa gogorra jokatu eta gero, astelehenean tropelak atsedean hartu zuten eta asteartean Alpeetako etapa gogorrekin ekin zieten txirrindulariek. Lehendabiziko etapen faboritoek ez zuten mugimendu handirik egin, bigarrenean Mikel Nieve leitzarra (Mitchelton) etapa irabazteko izan zen –helmugarako metro eskasen faltan aurreratuta zuten Skyko bere taldekide ohi Geraint Thomasek, Chris Froomek, Tom Dumoulinek (Sunweb) eta Carusok (BMC)– eta atzo

Alpeetako etapa nagusia jokatu zen, Alpe d' Huez mitikoan despeditu zena. Erredakzioa isterakoan oraindik ez genuen gertatutakoaren berri, baina etapa erabakigarria izango zela aurreikusten zen eta litekeena da sailkapen orokorrean eragina sortu izana.

Atzoko etapen emaitzen faltan, bezperan etapa irabazle Geraint Thomas (Sky) zen liderra (44:06:16) Chris Froome bere taldekidea 1:25era zuela. Ziordian bizi den Gorka Izagirre (Bahrain) 34.a zen, 34:49ra, eta Imanol Er-



Erbiti lan galanta egingen ari da. Galtzadarrietan Landa zuloatik atera zuten. MOVISTAR

biti (Movistar Team) 97.a, 1:10:34ra. Aipatu bi txirrindulariek euren liderrendako primerako lana egingen ari dira. Adibide gisa, igandeko galtzadarrien etapen erorikoa izan zuen Movistar Team taldeko Mikel Lan-

dak eta hura berriro tropelera eramateko izugarriko lana egin zuten Etxeberrikoak. Euren liderren alde hustutzen ari dira gure txirrindulariak. Asteartean Pirinioetara iritsiko dira, eta euskal zaleak dituzte zain.

Erkudenen ondoren, igandean Bargagainera

MENDIA Igandeko erromerian Altsasuko Mendigoizaleak taldeak denboraldiaren bukaera ospatuko du Bargagaineko gurutzean (1.156 m). Mendi irteeraz gain, meza elizkizuna, auzatea eta zortzikoa izanen dira

Ohitura denez, Erkudengo Ama erromeriaren hurrengo igandean Bargagaineko bidea hartzen dute altsasuarrek. Aurreko igandean izan zen Erkudengo erromeria. Beraz, etzi izanen da Bargagaineko erromeria eta Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako LVII. Bargagaingo Igoera.

09:00etan abiatuko dira

Ohi denez, igandean goizeko 09:00etan jaurtikiko dute suziria, Bargagainera abiatzeko. Alkateak jaurtikiko du, udaletxetik. 09:30ean hamarretakoa egingo dute gazteluan, eta behin Bargagainera igota (1.156 m), goizeko 11:00etan meza izanen da.



Erromeria polita da Bargagainekoa.

Auzatea, zortzikoak eta beste

Ondoren, eguerdian, auzatean bilduko dira mendizaleei batu-ko zaizkien guztiak. Auzatean gazta, txorizoa eta urdaiazpikoa banatuko dira eta Altsasuko Udalak zilarrezko katilueta dastatzeko ardo eskainiko du. Altsasuko erromeria guztietan bezala, zortzikoak ez du huts egingen eta dantzatzera animatuko dira bertan bildutakoak. Txoko guztiak garbi-garbi utzi ondoren, Altsasura jaitsiko dira bazkaltzera.

Altsasuarrendako erromeria berezia da Bargagaingo Gurutzekoa, eta makina bat bizilagunek hartzen dute parte ekitaldian.



Kayakean ibiltzeko aukera izango da Altsasun.

Animatu Altsasuko kayak jardunaldian izena ematera

KAYAK Garilaren 30ean izanen da, 11:00etan, Dantzalekun, baina 25erako eman behar da izena

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Udako kanpainaren barruan antolatuta, garilaren 30ean, astelehenarekin, Altsasuko igerilekuetan kayakean ibiltzeko aukera izango da. Ekimenean 5 urtetik gorako neska-mutiko guztiek parte

hartu ahal izango dute. Ekimena dohainik da, baina Mankomunitateak aurretik izena ematea eskatu du, garilaren 25a baino lehen (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus). Izena ematen dutenen arabera autobusa antolatuko da.

Uharte Arakil-Beriainen inskripzioa zabalik

MENDI LASTERKETAK Irailaren 23an jokatu da Aralar Mendi elkarteak antolatutako Km Bertikal lasterketa ezaguna eta irailaren 18ra arte eman daiteke izena www.kirolprobak.com web orrian

Aurten Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala lasterketaren 10. edizioa jokatu da. Irailaren 23an izanen da, baina bertan parte hartu nahi dutenek dagoneko izena eman dezakete www.uhartearakil-beriaian.com web gunean sartuz eta bertatik www.kirolprobak.com web orri- ra joanez edo, besterik gabe, zuzenean azken gune horretara sartuta. Irailaren 18ra arteko epea dago inskripzioa egiteko.

5 km oso gogor

Jakina denez, Uharte Arakildik (471 m) Beriain mendiko gailurrera (1494 m) igotzean datza proba, Autzasoroburu, Auntzal-



Dagoneko izena eman daiteke.

dapa eta Uharteko portutik. 5 km eta 1.023 metroko desnibel positiboko lasterketa motz eta esplosiboa. Proba Nafarroako Kilometro Bertikalen Txapelketarako izanen da, aldi berean, indibiduala eta klubaren artekoa.

2017an goi mailako korrikalari ugarik hartu zuten parte lasterketan eta Aitor Osa (40:56) eta Virginia Perez (49:33) izan ziren txapelkunak. Beñat Katarain (45:01), helmugan seigarrena, eta Erkuden San Martin (1:01:25), emakumezkoetan berderatzigarrena, izan ziren lehen sakandarrak. Proba jarraitzeko jende asko biltzen da Beriaingo magaletan.

Ehunmilak eta G2 Haundiak, bertan behera

MENDI LASTERKETAK Bi Ultra Trailletako 839 atletak ebakuatu egin zituzten, tartean sakandarrak

Beasaingo Arrastaka Mendi Taldeak prestatutako lan guztia pikutara bota zuten ostiral gaueko eta larunbat goizaldeko ekaitzek. Izan ere, ostiralean arrastaldeko seietan hartu zuten irteera Ehunmilak Ultratrailean (168 km, 11.000 m desnibel +) parte hartu zuten korrikalariak eta gaueko 23:00etan atera ziren G2 Haundiak Ultra Trailean (88 km, 6.000 m desnibel +) aritu ziren korrikalariak. Baina gaueko ekaitzak zirela eta, 00:30ak inguruan Ehunmilak proban zebiltzan 435 korrikalariak neutralizatu zituzten Azpeitian, 52 km osatuta zituztela, eta G2 Haundiko 458 partaideak Larraitzen, Abaltzisketan, 19 km jokatu zituztela. Horrela, gutxira 893 korrikalari eta makina bat boluntario ebakuatu zituzten. Gurutze Gorriari laguntza eskatu eta 14 todoterrenotan, 13

anbulantziatan, 9 tokiko 13 ibilgailutan eta antolakuntzak kontratatutako autobusetan igo eta Beasaingo kiroldegira eraman zituzten.

Aipatu lasterketetan parte hartzen ari ziren korrikalarien artean zeuden, esaterako, Joxeja Maiza, Javier Beraza, Arantzazu Larrañaga, Aitor Salinas, Alberto Martinez de Lagran, Felix San Roman, Beñat Katarain eta beste.

Marimurumendi maratokia, bai

Igandean, ordea, Beasaingo Arrastaka Mendi Taldeak antolatutako Marimurumendi maratokia jokatzeko (42 km, 2.300 m desnibel +) ez zen inolako arazorik izan. Aleix Bautistak (3:48:04) eta Ingrid Ruizek (4:24:30) irabazi zuten proba. Ibon Ubeda etxarriarra 61.a sailkatu zen (5:22:01).

Sakanako VII. Haur Triatloirako dena prest

TRIATLOIA Sakanako Mankomunitateak Urdiainen antolatutako proban 100 triatleta inguru lehiatuko dira, tartean Sakana Triatloi Taldekoak eta Sakanako Triatloi Campusekoak. NKJ-etarako baliagarria, bihar, larunbatean, 10:00etan hasiko da

Sakanako Mankomunitateak antolatuta, bihar, garilaren 21ean, larunbatean, 10:00etatik aurrera, XVII. Sakanako Triatloia jokatuko da Urdiaingo igerilekuan. Igeriketa probak Urdiaingo igerilekuan jokatuko dira, txirrindularitza probak igerileku ondoko paraje zoragarrietan, Urriztin eta Saraben eta korrika proba Urrizti inguruetan. Sakanako Mankomunitateak Nafarroako Triatloi Federazioaren, Nafarroako Gobernuaren, Aitziber elkartearen eta Urdaingo Udalaren laguntza du guztia behar bezala prestatzeko. Aipatzekoa da Urdaingo proba Nafar Kirol Jolasetarako (NKJ) baliagarria dela.

100 triatleta

XVII. Sakanako Haur Triatloian parte hartzeko aurretik izena eman beharra zegoen www.navarratriatlon.com web gunean. Erredakzioa ixterakoan 100 triatleta inguru zeuden izena eman



Urdiaingo igerilekuan eta inguruetan jokatuko da biharko proba. ARTXIBOA

da. Nolanahi ere, informaziorako Mank-eko Kirol Zerbitzura hots egin daiteke (948 464 866). Igeriketa probak Urdaingo igerilekuan jokatuko dira, eta bizikleta probarako zirkuitu ederra prestatu dute, beti bezala, Ur-

diaingo igerilekuetako bidetik abiatu eta Sarabe parajeen barrena. Korrika egiteko ere zirkuitua antolatu dute igerilekuetatik gertu. Triatletek derrigorrezkoa izanen dute kaskoa eta mendiko bizikleta erabiltzea. Aipatzekoa

da probak irauten duen bitartean juniorrek eta kadeteek ezingo dutela kanpoko laguntzarik jaso; gainontzeko mailetakoe laguntza jaso ahal izango dute, baina soilik epaile, teknikari edo antolakuntzako partaideen laguntza, arazo mekanikoak konpontzeko.

Proba gauzatzen den bitartean ibilbidea zainduta, markatuta eta trafikoari itxita egonen da. Bukaeran triatleta guztiei ogitartekoa eta zuku banatuko zaie.

Igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa uztartzen dituen kirol honetaz gozatzeko primerako aukera da biharkoa, paraje zoragarrian. Horregatik, Urdaingo igerilekura gerturatzeke deia egin du Mank-ek.

Aurreko urtean 100 triatleta pasatxok hartu zuten parte, eta tartean ziren Mank-eko Udako Triatloi Campusean dabilzan sakandarrak. Lan bikaina egin zuten, jokatutako 11 probetatik 5 proba Sakana Triatloi Taldeko kideek irabazi baitzituzten: aurrebenjaminena, Eneko Razkinek; benjaminena Ane Iturriozek eta Ekain Imazek; kimuetan Hego Lakuntzak; eta haurren emakumezkoetan Nahia Imazek.

JUNIORRAK IZANGO DIRA PARTE HARTUKO DUTEN LEHENAK, ETA AURREBENJAMINAK AZKENAK

Sakanako Haur Triatloiko distantziak

Urdiaingo igerilekuan, Urriztin eta Saraben jokatuko dira Sakanako Haur Triatloiko probak, honako distantzietan:

Juniorrak (00-99)

- **10:00** 513 m igeri (19 luze), 12 km bizikleta, 3 km korrika

Kadeteak (03-02-01)

- **10:00** 513 m igeri (19 luze), 12 km bizikleta, 3 km korrika

Haurrak (05-04)

- **11:25** 378 m igeri (14 luze), 6 km bizikleta, 1,5 km korrika

Kimuak (07-06)

- **12:15** 189 m igeri (7 luze), 3 km bizikleta, 750 m korrika

Benjaminak (09-08)

- **13:05** 81 m igeri (3 luze), 1,5 km bizikleta, 350 m korrika

Aurrebenjaminak (2010)

- **13:30** 54 m igeri (2 luze), 1 km bizikleta, 200 m korrika

Triatloi campusean

TRIATLOIA Mank-ek antolatutako Sakanako Triatloi Campusa martxan dago astelehenetik garilaren 27ra bitartean. Goizero, Aitor Mozo eta Urko Berdud monitoreekin 20 neska-mutiko igeriketa, bizikleta eta korrika uztartzen dituen kirolean trebatzen ari dira. Biharko Sakanako Haur Triatloian ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 20

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uhartar Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ETXARRI ARANATZ Gozategi taldearen kontzertua. Gobernuko Kultur programa.
20:30ean, plazan.

LARUNBATA 21

ALTSASU Altsasu-Otzaurre-Gorosmendi-Leitza-Huiziko portua-Madozeko portua-Altsasu 140 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepide atalekoek.
08:00etan, San Juan plazatik.

ZIORDI Landaremutako okupazioaren aldeko jardunaldiak. Sasi Guztien Artian elkarteak antolatuta.
10:30etik aurrera, Amaraunan.

SATRUSTEGI Arakil bailararen eguna. Ikus 9. orrialdean.
11:00etatik eguna, Santiago ermitan.

SATRUSTEGI Izan zaituzte ikazkin egun batez. Txondorra piztea eta mustutzea.

11:00etatik aurrera, herri hegoaldeko intxardogian.

UHARTE ARAKIL Arkeologia indusketara bisitak. Adituko kideak egiten ari diren lana azalduko dute.
11:00etan, Aralarko santutegian.

IGANDEA 22

UHARTE ARAKIL Aralarko pagadia, karst eta behatokiak 12 eta 14 km-tako ibilbide ertaina. Erreserbak: info@mirua.com eta 608560369.
10:00etatik 17:00etara, Santutegiko informazio gunetik.

ZIORDI Landaremutako okupazioaren aldeko jardunaldiak. Sasi Guztien Artian elkarteak antolatuta.
10:30etik aurrera, Amaraunan.

URDIAN Egun batez aktore: Robin eta Marian. Paseoa zaldiz. Erreserbak: 687424839/626749149 eta errotain@gmail.com.
11:00etatik aurrera, Errotain zalditegian.

UHARTE ARAKIL Haurren aurkezpena Aralarko goiaingeruari.
12:30ean, Aralarko santutegian.

ALTSASU Orain presoak tour-aren Altsasura iritsiera eta ekitaldia.
18:30ean, Foru plazan.

OLAZTI Txan Magoaren Inpernutik natorren artista bat naiz ni ikuskizun berria.
18:30ean, Barandi tabernan.

OLAZTI Munduaren historia El Peliren bakarriketa.

20:00etan, Barandi tabernan.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 23

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataforma.
19:30ean, udaletxe parean.

ALTSASU Euskaraldia: Zer egingo dugu Altsasun? Bilera irekia.
19:30ean, Gure Etxean.

ETXARRI ARANATZ Zinema kalean: Zipi eta Zape kapitainaren irla.
22:15ean, Ikastolako patioan.

ASTEARTEA 24

ALTSASU Hondatzara ateraldia. Gazteria zerbitzuak antolatuta.
15:00etatik 21:00etara, Intxostiapuntatik.

ASTEAZKENA 25

IRURTZUN Udako zinema: Handia.
22:00etan, Foru plazan.

OSTEGUNA 26

LAKUNTZA Ur festa goxoa gazteentzat. Gozamen programara.
21:00etan, igerilekuan.

ARBIZU Jaialdi akustikoa: Kur eta Kuma.
21:45ean, Eko Kanpinean.



UHARTE ARAKIL Kristauak erasoan munduan zehar argazki erakusketa. Irailaren 30 arte.
10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegian.

ZORION AGURRAK



Ibai Arana Zabala Zorionak Ibai maitia!! Egun berezia pasa zure lagun eta etxekoekin!! Muxu bat familia guztiaren partez



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarranavarra.com
www.dekovenavarranavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA I NEGOZIOAK

BILKETA ZERBITZUA

Sakanako atez ateko arropa bilketa: arropa, oinetako eta ehunak. Hurrengo bilketak: Erroz eta Urrizola, uztailak 24. Informazioa 948 469 206

OHARRAK

Altsasuko 2017ko kintari harrera: Altsasuko festetan, Irailaren 13an, 10:30ean, 2017an jaiotako kintari harrera egingen dio Udalak. Altsasun erroldatuta ez dauden haurrek, zapia jaso eta kintaren lehen argazkian parte hartzeko, agorriaren 24ra arte eman dezakete izena www.altsasu.eus-en.

Bakaikuko festak: gailaren 27an, ostirala, 14:30tan gazte bazkaria egingen da Aiztin. Txartelak Koxkon eta Amaiarenean, 15 eurotan, hilaren 22ra arte.

Adona. Odol-emateak Arbizun: uztailaren 25ean, 17:00-20:30. www.adona.es/eu

Etzarri Aranazko kontsumitzaileen bulegoa. Irailak 3. Iratxe elkarteko kide batek atendiitzen du. Aldez aurretik udaletxean izena eman beharra dago.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta inehelariaren aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000

euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko bitokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hilero 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardue- ra sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzazki proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariaren Elkarteak langabeei eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

OPATUTAKOAK I GALTUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Auditorioa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Angelica Katarain Mugika

Esther Garaialde Katarain andereñoaren ama

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Iñigo Aritza ikastolako guraso, irakasle, ikasle eta langileak



ESKELA



Miguel Angel Alegria Alegria

Lakuntzako alkate ohia

Eskerrik asko Lakuntzari emandako guztiagatik



LAKUNTZAKO UDALA


HERIOTZAK

- **Jose Lizarraga Garziandia**, uztailaren 10ean Unanun
- **Leonor Avila Castaño**, uztailaren 13an Errotzen
- **Benito Razkin Flores**, uztailaren 13an Arbizun
- **Migel Angel Alegria Alegria**, uztailaren 16an Lakuntzan
- **Josefina Unzilla Araña**, uztailaren 18an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 20




Egun goibela, nahiz eta ateri mantendu egunaren gehiengoan, noizbehinka euria izan dezakegu. Tenperaturak asko jaitsiko dira.

Larunbata, 21




Larunbatean eguraldiak hobera egingo du arratsaldean. Ostertean irekiko dira, bereziki iluntze aldera.

Igandea, 22



Eguzkia ager daiteke eguneko momentu batzuetan, baina tenperaturak ez dira asko igoko.

Astelehena, 23



Ipar haizearekin jarraituko dugu, baina eguzkiaren presentzia nabariagoa izango da. Hau dela eta, tenperaturek gora egingo dute.

ESKELA



Joxepi Unzilla Araña

Arbizun, 2018ko uztailaren 18an

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Poxtiñeneko fameliya

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 €
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 €
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🖱 www.tanatoriosirache.es



«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com



Shibuya taldeko kideak.

"Bidegurutzean abeslaria topatu dugu eta bide berria hasi dugu"

SHIBUYA TALDEA

Musika talde berria sortu da Uharteko Arakilen

Erkuden Ruiz Barroso UHARTE ARAKIL Maria Betelu (ahotsa), Atxer Beltza (baxua), Julen Martiarena (bateria) eta Haitz Uharteko (gitarra) dira Shibuya talde berriko kideak. Taldea berria da, baina taldekideak musikaren munduan esperientzia dute. Dida taldeko kideak ziren Beltza, Martiarena eta Uharteko. Irurtzongo Larrazpin kontzertua eskainiko dute gaur, 23:00etan.

Nola sortu da Shibuya taldea?

Lehen Dida taldea ginen eta Iosuk, gure abeslariak, taldea utzi zuen. Bi urte-edo egon gara abeslaririk gabe entseatzeko. Eta, orduan, Maria hasi zen gurekin abesten. Erabaki genuen taldeari izena aldatzea eta hor hasi zen Shibuya bide propioa egiten. **Nolakoa zen Dida eta nolakoa da Shibuya?**

Didarekin duela hamar urte inguru hasi ginen, 2006 urtean gutxi gora behera. 20 kontzertu inguru egin genituen: Uharteko Arakilen, Etxarri Aranatzeko, Olaztin... Shibuyan Didako abestiak egiten ditugu gehienbat, baina orain abesti berriak egiten hasi gara. Gainera, Mariaren ahotsa moldatzen ari gara abestiak abeslari bakoitzak modu propio batean abesten duelako. **Nolako esperientzia izan zen?**

Esperientzia polita izan zen. Gustura gabiltzalako egiten dugu, bestela ez ginen ibiliko. Guztion helburua ongi pasatzea eta ikastea da. Astean behin entseatzera elkartzen gara, ongi pasatzen dugu eta garagardo pare bat hartzen ditugu.

Gaur kontzertua egingen duzue Irurtzunen. Zenbat kontzertu eman dituzue orain arte?

Bi kontzertu eman ditugu. Lehenengo Nabaskozen egin genuen Didaren azken kontzertua han egin genuelako, eta Shibuyaren lehenengo kontzertua han egitea erabaki genuen. Eta gure jendearen aurrean ere aurkeztu ginen Uharteko Arakilen. Baina helburua ongi pasatzea da. Bi urte egon gara abeslari gabe, besterik gabe entseatzeko. Orain Maria etorri dela helburua agertokira ateratzea da eta disko bat grabatzea. Deitzen bagaituzte, joango gara. Abuztuan oportetara goaz, baina irailetik aurrera kontratatu nahi bagaituzte, prest gaude.

Zer musika estilo jotzen duzue?

Betiko galdera. Denetariko abestiak ditugu. Elkarren artean zeriak handirik ez duten abestiak ditugu. Rocka izan daiteke? Ez dakigu nola definitu. Baditugu metaleroagoak diren abestiak, azkarragoak, balada bat ere dugu, poperak direnak... Gustatzen zaigun musika jotzen dugu.

Bukatzeke, izena nondik dator?

Batzuk daude... Nabazkozetik deitu ziguten eta izen bat esan behar genuela esan ziguten. Eta elkarte bost minutuetan erabaki genuen Shibuya jartzea. Zer da Shibuya? Tokyoko bidegurutze ospetsu bat da, Japonian. Orduan, Atxer, Julen eta Haitz bidetik gindoazen, eta bide erdian Maria elkartu da eta bide berri bati ekingo diogu.

Gozategiren kontzertua gaur Etxarri Aranazko plazan

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Kultur programaren barruan eskainiko dute kontzertua

ETXARRI ARANATZ

Kultur programa udako gauetan gauzatzen da. Aurreko ostiralean IDWAC taldearen kontzertu izan behar zen Arbizuko Olazteako terrazan, baina eguraldi txarraren ondorioz bertan behera utzi zuten, eta oraindik zehazteke dagoen data batean eskainiko du folk taldeak kontzertua.

Etxarri Aranatzek hartuko du ostiral honetan Kultur programaren lekukoa. Gozategi taldearen kontzertua izanen da gaur, 20:30ean, plazan. G puntua aurkeztu zuen Gozategi taldeak maiatzean, "gozamenek" egindako diskoa, Iñigo Goikoetxea taldeko kideak azaldu zuen bezala. Disko berria "oso Gozategi" dela azaldu zuen: "jendeak entzuten duenean ez du sorpresa handirik hartuko". Diskoa kaleratu badute ere, Gozategi agerplazetan sentitzen da erosoan.



Gozategi Etxarri Aranatzeko 2014an.

G puntua disko berriaren abestiak betiko erreperorioarekin uztartuko ditu Gozategi Etxarri Aranazko emanaldian. Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea, Imanol Goikoetxea, David Gorospek, Asier Sarasolak eta Iñigo Peronak osatzen dute taldea.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Iruña-Veleia: interesik ezaren interesa



Lehenengo egunean Guaixe ireki eta argazki hura berriz ere aurkitu nuen nire begien aurrean: nire tesiaren defentsaren egunean, 2006ko ekainaren 21ean, Henrike Knörr maisuak arratsaldeko 17:30ean egindakoa. Irudia baliatu nuen iazko maiatzaren 12an gure aldizkari honetako Bazterretik idatzi nuen zutabea ederresteko. Testuaren izenburua: "Iruña-Veleia zoriontsuak ginen garaian". Akatsa eta guzti...

Iruña-Veleia, ez delako Iruña. Baina garai haietan pozik bizi ginen eta ez ginen soberazko "e" batengatik kezkatzen. Flaviar leinuko garaiko Iruña-Veleian jeroglifikoak zeuden, Niloko loreen usaina, Kristoren garaiko kalbarioak, erromatarren jainkoak buruz behera gurutzifikatuak, Jupiter bera ere txeritxo baten barruan eta Aita gurea euskara ederrean errezatzeko aukera.

Poesiaren Egunak ekimenean lurra izan dute hizpide

Poesiaren Egunak ekimenaren hamabosgarren edizioa egin dute garilaren 13tik 15era Bizkaiko Ea herrian. Castillo Suarez altsasuarra da ekimenaren antolatzaileetako bat. Lurra sustraiaetik orri izan da aurten edizioaren titulua. Juanjo Olasagarre idazle arbizuarrak errezitala eskaini zuen jardunaldian.

Aire zabaleko zinema saioak Irurtzunen eta Etxarri Aranatzeko

Garilaren 23an, asteartean, *Zipi eta Zape kapitainaren irlan* filma proiektatuko dute Etxarri Aranazko ikastolako patioan euskaraz. Saioa 22:15ean izanen da.

Irurtzongo Foruen plazan Udaoko zinema zikloaren bigarren filma eskainiko dute: *Handia*. Proiektzioa euskaraz izanen da eta gaztelaniazko azpitituluak izanen ditu. 22:00etan izanen da.

Nire tesiaren aldeze-ekitaldiaren ondoren Iruña-Veleiara joan ginen. Ekaina zen. San Juan bezperetan. Hantxe zegoen, harro, Eliseo Gil Zubillaga eta harekin bildu ginen, Henrike Knörrrekin batera beste aditu asko, Txomin Peillen eta Txillardegiren artean. Denak geunden irrifartsu eta ilusioz beterik: Iruña-Veleia, erromatarren garaian 5.000tik 10.000 biztanletara zukeen hiria, euskalduna zen...!! Zalantza izpirik ez...!! Hala eta guztiz ere, Arkeologia Museoa giltzapetuta zeuden ostraken argazkiak ikusi ondoren fedegabe batzuk hasi ziren elkarri begira eszeptizismo puntu batez... Zer zekiten haiek? Zer nolako hodei beltzak ari ziren hedatzen Interneteko Celtiberia.net web orrian?



Jose Ulibarrena eskultoreak intxaurrekin egindako eskultura. ARTXIBOA

"Kaltetutako" eskultura bizitzara itzuliko dute

"Altsasu den guztia" irudikatzen duen eskulturaren egoera "txarra" da. Hortaz, eskulturan zaharberitze lanak eginen dituzte Elur Ulibarrenaren zuzendaritzapean. Boluntarioak bilatzen dabilta. Izena emateko epea hilaren 31a arte izanen da

ALTSASU

Feminitatea, gizontasuna, nekazaritza, trenbidea, errementaria, kobazuloak, Mainamikirri sorgina, inauteriak, trena, txirrindularitza... Jose Ulibarrena eskultoreak Altsasuren alegoria egin zuen herriko plazan zegoen intxaurrekin. Intxaurrekin zegoen Altsasurrendako eta, ondoren,

sinbolo bihurtu zen harekin egindako eskultura. 1994. urtean mustu zuten eskultura Foru plazan. Denborarekin, eta bereziki Altsasuko eguraldiaren ondorioz, eskultura kaltetu da. Altsasuko Udalak eskultura zaharberitzeko proiektua martxan jarri du. Lanak abuztutik azarora bitarte izanen dira eta prozesu parte hartzailea izanen

da, beraz, boluntarioen bila ari dira. Izena ematea hilaren 31n bukatuko da. Lanen zuzendaria Elur Ulibarrena zaharberitzalea izanen da, eskultorearen alaba.

Egurra elementu "bizia" da eta eguraldiaren eragina nabaria da. Javier Ollo Altsasuko alkateak eskulturaren zaharberitzearen beharra azaldu du.

"Egurra oso kaltetuta dago". Ez da lehenengo aldia Altsasuren irudia den intxaurrekin egindako eskulturaren egoera txarra konpontzeko ahalegina egiten dena. 2011. urtean Elur Ulibarrena zaharberitzaleak proiektu bat egin zuen, "baina urteak pasa ziren eta proiektuan aipatzen ziren lanak ez ziren egin", alkatearen hitzetan. Hortaz, aurtentzako proiektua eguneratu du Ulibarrenak eta zaharberitze lanak egitea adostu dute. "Horretarako parte-hartze prozesua egitea guztiz aproposa dela uste dugu eta parte hartuko duten pertsonen zaharberitzalearen arauak jarraituz" eginen dute lan. Udalak 16.000 euroko aurrekontua bideratu du proiektuarendako.

Parte-hartze prozesua

Elur Ulibarrena zaharberitzalea izango da proiektuaren zuzendaria. Zaharberitze lanak abuztuan hasiko dira eta azarora bitarte eginen dira. Zaharberitze lanak egiteko boluntarioak behar dituzte, baina, proiektuan parte hartzeko hainbat baldintza bete behar dira: Europar Batasuneko hiritarra izatea, 18 urtetik gorakoa izatea eta horrelako lanak egiteko galarazten duen gaixotasunik edo lesiorik ez izatea. Interesa dutenek Altsasuko webgunean dagoen eskabidea bete eta bidali behar dute. Udal bulegoetako erregistroan eskabidea bete dezakete ere. Hautaketa prozesua izanen da, eta horren arabera ordutegiak eginen dira. Zaharberitze lanak astegunetan eginen dira goizez eta arratsalde, hala ere, ordutegiak malguak izanen direla azaldu du Ulibarrenak.

Jose Ulibarrena eskultoreak egin zuen "Altsasu den guztia"

islatzen duen Foru plazako eskultura. 1991. urtean plazatik kendu zuten intxaurrekin egindako eskultura. 1994an mustu zuten. Bi zati ditu: Altsasuarren nortasuna adierazten duena eta herriko festak irudikatzen dituena. Irudia 28 irudiz edo sinboloz osatuta dago, haietako batzuk denboraren ondorioz hondatu direnak.

Zaharberitzea

Eguraldi txarra da eskulturaren arerio nagusia: "Egurra higroskopikoa da eta aire zabalean asko sufritzen du hezetasun eta tenperatura aldaketekin, bereziki", Elur Ulibarrenak azaldu duenez. Hortaz, eskultura jarri eta lehenengo bost urteetan Altsasuko udalak linazi-olio tratamendua egiten zuen urtero. Tratamendua emateari utzi zioten eta filtrazioak ekiditeko metalezko xafla bat jarri zuten. Egurrean sortutako zuloak eta arrakalak silikonarekin bete ziren ere. Baina ez zen nahikoa izan eskulturaren hondatzea ekiditeko.

"Egoera orokorra oso txarra da". Egurren egoera "kaxkarr" ez ezik, eskulturrari hainbat zati ere falta zaizkio. Ulibarrenak azaldu duenez: "Ez dakigu zehazki zenbat zati falta diren. Zati batzuk Iortian daude. Alderatu beharko dugu gaur egun dagoen eskultura jarri zutenean egindako argazkiekin, eta, horrela, multzoa ahalik eta hobekien konpondu".

Zaharberitze lanaren parte hartzaile izatea, zaharberitze lanaren inguruan ikastea eta ondarea baloratzea dira proiektuaren helburuak. Hiru fasetan eginen da zaharberitzea eta, ondorioz, hainbat taldek egin ahal izanen dute.

Baztanen egin dute Irantzu dantza eskolako Campusa

Sei egunez dantzan aritu dira udako Campusean egon diren dantzariak. Dantza estilo ugarian trebatu dira

ALTSASU

Dantza garaikidean, klasikoan eta funkian trebatu dira Irantzu Gonzalez Azpiroz dantza eskolak antolatutako Dantza Campusean parte hartu duten 22 dantzari gazteek. Gainera, dantza garai-

kide talde aurreratuko bost kide ere egon dira Campusean. Baztango landetxe "polit" batean egon dira ikasleak. Garilaren 10ean, asteartean, joan ziren eta garilaren 15ean, igandean, egin zuten campus bukaerako ema-

naldia. Igandean dantzarien gurasoak Baztanera joan ziren ikasleek egindakoa ikustera.

Irakasleak

Irantzu Gonzalez dantzariarekin batera, Igone Augusto eta Maider Lazkoz egon dira irakasle laguntzaile lanak egiten. Sophie Jenna Danby dantzaria ingalateratik etorri da ikastaroak emateko; hortaz, jarduerak euskaraz eta ingelesez izan dira. Jenny Domingok funky klaseak eskaini ditu.



Campusean egon diren ikasleak eta irakasleak. UTZITAKOA

11 GALDERA

"Nepalera joateko desiatzen gaude"

"Nepal-Euskal Herria Oxigenoa Euskarari 6000 metroan ere" proiektuan daude Eneko Arretxe arbizuarra eta Unai Iturrieta. Nepaleko gazteekin bildu eta bertan trekkinga egitea du xede proiektuak, nork bere hizkuntzak, euskara eta sherpa, sustatuz.

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

1 15 gazte euskaldunek hartuko duzue parte proiektuan, tartean bi nafar, zuek.

Felipe Uriarte etorri zen Paz de Ziganda gure ikastolara proiektuaren berri ematera, galdetu zuen ea nork parte hartu nahi zuen eta guk izena eman genuen. Lau nafar aurkeztu ginen eta guk biok lortu genuen proiektuan sartzea. Zorte handia izan genuen. Taldean 14 eta 18 urte bitarteko 15 gazte bildu gara.

2 Nor da Felipe Uriarte?

Euskaldunek Everestera egin zituzten lehenengo bi espedizioetako mendizaleetako bat. Lehenengoan ez zuten Everestera igozteko lortu eta bigarrenean bere taldekideek lortu zuten igozteko, baina berak ez. Horretaz gain, Mendiak eta Herriak mendi taldeko burua da, mendi gidariek sortutako elkarte bat. Eta bera da "Nepal-Euskal Herria Oxigenoa Euskarari 6000 metroan ere" proiektuaren burua.

3 Zein da proiektu honek bulkatzen duena?

Helburu nagusia da euskararen inguruan saretze lana sortzea.

Euskal Herri osoko mendigoizale gazteok gure artean harremanak egitea eta, bestetik, euskararen alde egitea; halako proiektu bat euskaraz egin daitekeela erakustea. Euskal Herri osoa batzea eta euskara sustatzea.

Oxigenoa Euskarari hasieran proiektu xaloa zen, Laudion sortua eta mendia eta euskara lotzen zituena. Euskal Herriko mendiak, Pirinioak... hor egiten zituzten egonaldiak. Baina Felipek proiektua handitu nahi izan zuen eta hau izango da lehenengo aldia Nepalera heltzen dena.

4 Nepalera joango zarete bertako 15 gazte nepaldarrek elkartu eta elkarrekin trekkinga egiteko.

Urriaren 10etik azaroaren 9ra arte joango gara Nepalera eta han trekkinga egingo dugu beste 15 sherpa gazterekin. Euskara eta sherpa bi hizkuntza gutxitu direnez, bilatzen dena da hizkuntzak beraien artean laguntzea eta beraiekin elkartzea, sare baten bidez.

5 Proiektuak eskatzen dizue diru iturriak bilatzea.

Bai, ekimenak antolatzen ari gara dirua lortu ahal izateko. Kamisetak egin ditugu, enpre-

setara joan gara proiektuaren berri ematera, Oñatin maiatzaren 19an bertso jaialdia egin genuen eta irailaren 16an azken ekimen moduan kontzertua eginen dugu Oñatin: Et Incarnatus orkestra ganbara abesbatza eta sorpresaren bat ere sartuko dugu.

6 Sakanan kamisetak salduko dituzue?

Bai, Arbizuko festetan salgai jarri genituen eta jendea oso ongi portatu zen. Sakana Kooperatibak ere diru laguntza eman digu eta eskertuta gaude. Baita Lacturalek ere. Artzai Egunean postua jarriko dugu, abuztuaren 26an eta Etxarriko festetan ere postua jartzen saiatuko gara, larunbatean edo... Sakandarrak ongi portatzen ari dira.

7 Nepaleko 6000 metroak askotxo dira. Entrenatu zarete?

Ez dira gutxi, eta errespetua eta beldur puntu bat badauzkagu, baina horrelako aukera bat ezin dugu alferrik galdu. Entrenatzen gabilta. Egin ditugu gure artean elkar ezagutzeko hainbat irteera. Duela gutxi Pirinioetan trekking irteera egin genuen: Posets, Perdiguero eta Aneto mendiak igo genituen.



Eneko Arretxe eta Unai Iturrieta, proiektua sustatzeko kamisetekin. UTZITAKOIA

8 Nepaleko gazteekin bestelako topaketak egingo dituzue mendi irteerez gain?

Oraindik ez dugu izan beraiekin kontaktuan jartzeko aukerarik. Trekkinga egin eta gero, harremana ona bada, harremanetan jarraituko dugu.

9 Zer topatuko duzue Nepalen? Zer espero duzue?

Ba pentsatzen dugu ikusiko dugula zeinen gogorra den hango bizitza, zein kultura ezberdina den. Hemen nahitaez nahiko "aberatsak" gara, beraiendako bederen, eta alde hori nabaritutako da. Ildo honetan, ikastolarako materiala bidaliko diegu. Han bakarrik eskola bat dute sherperaz, eta ez dituzte guk ditugun eskola-materialak. Azoka solidarioa egin genuen eta

materiala bildu genuen laguntzeko. Eta aparte, diru bilketarekin lurrikarak kaltetutakoak laguntzen dituen Gobernu Kanpoko Erakunde bati laguntzea dugu buruan.

10 Nolakoak dira salgai dituzuen kamisetak?

Bi dira. Bata helduena, beltza eta grisa eta bestea umeena, gorria edo berdea. Umeen kamisetan hitz jokoa egin dugu: "ardiyak". Izan ere, gureak ardiak dira, eta beraienak yakak. Hortik ardiyak.

11 Desiatzen urriaren 10a iristeko?

Bai, Nepalera joateko gogoz. Orain uda disfrutatzen gabilta, diru finantzaketa lantzen, eta gero gerokoak...



Zure logoa edozein euskarrietan

GK Komunikazioa • Foru plaza, 23-1. Altsasu (Nafarroa)
948 564 275 • gk@gkomunikazioa.eus

